

ZIBERO

—  
—

# USKALDUNAK IBAÑETAN

TRAJERIA HIRUR PHARTEGAN

Behar da burhagertu bethi Uskaldun !

(3<sup>en</sup> phart. p. 146)

“ ESKUALDUN ONA ”

kasetaren moldetegian, Marengo kharrikan 8

—  
BAYONAN

N-237354

ZRV  
3411

## **Trajeriaren egitiak emaiten deizkun zuzenez hitz bat.**

---

Orai argitarat emaiten dugun *Trajeriaren* egitera ekharri gutu gure Uskal-herriko usantcha zaharren amorioak.

*Trajeria* huntan osoki errespetatu duñugu, sobera phastoraletan laidogarriki hautserik diren, erreligioniaren eta onestatiaren legiak.

Bizpahirur orenez jokhaturik da, eta behazalek eta so egilek eztie deusere behar eztenik ez entzunen ez ikhusiko ; aldiz, ikhasko die egiazko erreligioniaren, Uskal-herriaren eta gure mintzaje zahar bezañ ohoragarri denaren maithatzen.

Eliza besta astelehen batez, edo, ihautiriko astegun batez, edo igante arristiri batez, ofizioen tenorez kampo, deskantsu gocho eta onest bat dateke, *trajeria* hunen jokhatzia.

Liburu egiler legiak ezagutzen dutian zuzenak gihauen begiratzen tugu. Zuzen haien

arabera, *trajeria* hau jokatu 'nahi dukienek, behar dukie hitzartu lehenik gureki. (1)

Orai danik jakinerazten degu, eztugula utziko hunen jokhatzera behinere igante edo besta *goizez*. Igante aristiriez jokhatzia honhartuko dugu, Jaun Erretoraren baimenarekin, ofizioen aitzinetik edo ondotik, beste solasik gabe:

Berberak hounhartuko dutugu dantza jauziak edo maskaradetako gizonen beren arteko dantzak, trajeriaren ondotik.

*Trajeriaren mustrek* ere eginik izan behar dukie, igantez egiten badira, ofizioen tenorez kampo bethi.

---

(1) Hitzartzeko aski date izkiribatzia adreza huntara :

Murde Clément d'ANDURRIID

Château de Maytie

MAULÉON.

edo orano :

Imprimerie FRANCO-BASQUE

Rue Marengo, 8


BAYONNE.

Gure aitak zuhur ziren, hen artian Uskaldunaren legiak, eta Erreligioniarenak bat beitziren, Uskaldun izatia ala Khiristi hon izatia batetara horra beitzen.

Guk ere Erreligioniaren eta sorlekhiaren amorioa legetako hartuz, bethi jarraiki dezagula gure aiten sail ohoragarria !

Biba Erreligionia ! Biba Uskaldunak ! Biba Uskara !





# **SUJETAK edo ATURRAK**

---

## **Uskaldunak**


OTCHOA, Uskaldunen erregia ;  
GARZIA, Laphurtarren gehiena ;  
ENEKO, Garaztarren gehiena ;  
SEMEN, Ziberotarren gehiena ;  
AINGURIA, PETRISANTZ, BAILETAK,  
SOLDADOAK, etc.

## **Frankoak**

CHARLEMAÑA, Frankoen erregia ;  
ARROLAN, Bretañako aitzindaria ;  
OLIVIER, Franko gehiena ;  
TURPIN, archibiskoa ;  
GANELON, Bordeleko kontia ;  
ANSELMO, Erregiaren palazioaren begi-  
taria ;  
EGGIHARD, Erregiaren mahañaren ai-  
tzindaria.

## **Mahometanoak**

SOLEIMAN EL ARABI, Saragozako er-  
regia ;  
ABU-TAHER, Hueskako erregia ;  
KHASEN-BEN-YUSUF, errege Morroa.



# LEHEN PHEREDIKIA

---

Agur uskaldun bat  
deiziet emaiten orori,  
Bethi lagunt zitzaien  
galthatzen Jinkoari.

Dembora zaharreko  
aitek eman etsempliak,  
Hon da izan ditian  
goratik aiphatiak.

Badeia populu bat  
guria bezañ zaharrik,  
Hañ libro, hañ azkar  
odolez izan denik ?

Egunko solasak  
deizie erakutsiko  
Zér indar ziergure aitek  
zuzenen begiratzeko.

*Ibañeta garatian  
egun ikhas dezagun  
Nola gure libertatiak  
begiratu behar tugun.*

*Han gure aitek zien  
etsai aiphatu bat goithu ;  
Arrolan eta haren  
armada erhaustu.*

*Gerthakari handi hura  
hirur phartetan gei dugu  
Zier orhiterazi  
Jinkoak plazer badu.*



*Lehen pharteko solasak  
Iruñe hiri zaharrian  
Ezariko gutu Otchoaren  
palazio ederrian.*

*Otchoa zen orduko  
Uskaldunen erregia,  
Gizon eder bat, sentho,  
ororez maithatia.*

Gehien lagun zutian  
Garzia Laphurtarrentako,  
Ziberotarrena Semen,  
Manechena Eneko.

Aizo honareki  
ehi da ontsa bizitzia ;  
Aizo gaistoareki  
eztaite izan bakia.

Uskaldunen aizo  
ziren Espaňako aldetik  
Morroen populiak  
jinik Afrikatik.

Jinkotako Allah  
zien haiek adoratzen,  
Eta beren legiala  
abala mundu biltzen.

Mahometano haiek  
zien emaiten haitia :  
Allah-ren adoratzia edo  
ehorik izatia.

Uskaldunek ordian  
zutien burkhidetako  
Morroen hirur errege  
oro zoīñ kru delago.

Hetarik bata zen  
Soleiman el Arabi,  
Harek zutian Saragozan  
hanitch martir hilerazi.

Bestia Hueskako  
aitzindari tchipi bat zen,  
Bekhaitz eta kru dela,  
Abu-Taher deitzen.

Khasen-ben-Yusuf  
deitzen zen hirurgerrena,  
Mundu huntan izan den  
gizon faltsiena.

Morroek hirur astez  
*Iruñe* setiaturik,  
Hirian ezin sartuz  
ziren etsiturik.

Ikhusiren dugu nola  
jakin zien gure aitek,  
Uskal-khentia ezeztatu  
nahi ziela Morroek.

Etzien nahi Morroek  
. Allah baizik beste Jinkorik,  
Ez elizarik, ez aphezik,  
ez mintzaje uskararik.

Uskaldun gehienak,  
aihaitera khumitatuz,  
Hil nahiko dutie  
hurak phozoatuz

Otchoak bere etchian  
elhe emanen du haieki,  
Eta *Charlemaña* da jinen  
bere laguneki.

Frankoen eta Morroen  
artian da phizten gerla,  
Eta Otchoa baratzen  
bakian berbera,

Hitzemanerazten du  
Charlemaña erregiari  
Frankoek ogenik eztela  
eginen Uskal-herriari.



Bigerren phartiareki  
khausitzen gira, uda beroan,  
Altabizkarren, Otchoak  
zian jauregian.

Haritz handi elibaten  
itzalian, Uskaldunak  
Bildu zutian alageraki  
elizabesta astelehenak.

Han urthe oroz primakak  
baziren haien artian,  
Pelotakan, koblakan  
eta dantza jauzietan.

Huna nun Otchoak  
besta egun haren erdian  
Berri gaichto eli bat  
jakiten dutian.

Charlemaña Saragozan  
eztelakoz ahal izan sarthu  
*Iruñe hiria erre*  
dela mendekatu.

Ganelon bekhaisteriak  
traidore egin diana,  
Helturen da lehian  
Jaun Otchoaren gana.

Harenganik Uskaldunek  
jakinen die cheheki  
Arrolan Ibañetara  
heltzen dela laguneki.

Hitz hartzen die berhala  
behar tiela armak hartu,  
Afruntia behar dela  
odolian chahatu.

Bere salhatze eta  
tradizionia gatik  
Izanen da Ganelon  
ontsa gaztigaturik.

Zeren ezpeitutu deusek  
hañ desohoratzen gizonak  
Nola salhater eta  
trajdore izatiak.



Hirurgerren phartian  
ikhusiko dugu nola  
Ibañetako bortian  
eginik izan zen gerla.

Frankoak alde batetik,  
beste aldietik Uskaldunak,  
Munduko soldadoetan  
orotako hoberenak.

Lehon elibaten pare,  
zalhe hala nola orkhatzak,  
Gure aitek Ibañetan  
goithu zutien Frankoak.

Bitoria handi horrez  
ziekin mintzatuz egun  
Nahi gira burhagertu  
goratik Uskaldun.


Gurē aitek beren lurrik  
ezpataz defendatzen zutien ;  
Uskararen begiratzeko  
zer etzien eginen ?

Ezi Uskal-herriko lurrik  
beretu beno lehenago  
Uskara hen artian zen  
hanitch mentez zaharrago.

Batere balinbadugu  
ohorerik eta ahalkerik  
Eztugu ez behar egon  
Zuzen zaharrez gabeturik.

Eztugu ez izan behar  
ez ezachol, ez sorhaio ;  
Behar dugu ukhen odol  
ñaboek beno haboro !

*Uskaldunik ezteite izan*  
*Uskararik ezpada haboro ;*  
*Ezkinante izan Uskaldun*  
*ezpalinbagira libro !*



# ENTRADA

EDO

## SUJETEN PRESENTAZIONIA

---

### OTCHOAK

Jaunak eta anderiak  
Bere grazia arimetañ  
Eta osagarri khorpitzetan  
Eman dezaziela Jinkoak.

Hor naiziela Otchoa  
Uskaldunen erregia,  
Haien artian sorthia,  
Uskalduna, oso osoa.

Ene kargu ederrari  
Doatzen eginbidiak,  
Tchipiak eta handiak  
Bethatzen dutut bethi.

Eztut ekhartan legerik  
Nun ezten Erreligionian,  
Justizian eta Libertatian,  
Osoki bermaturik.

Ene pekoek maite naie ;  
Ber Jinkoa dugu adoratzen  
Eta ber Uskara mintzatzen ;  
Oro gira alkharren anaie.

Orok bat egiten beitugu  
Oro ber gisalā biziz,  
Lege chuchener jarraikiz,  
Ihuren beldurrik eztugu.

#### CHARLEMAÑAK (1)

Ni Charlemaña nizala  
Frantziako erregia ;  
Ene fama handia  
Mundian hedaturik dela.

(1) Uskaldun eztiren sujetak *Uskal-gaitz* dira ; har-takotz gure mintzajia ezpalakie bezala mintza bite be-rheziki atur Morroak S markatiak frantzes hitzetan bezala, edo *z* uskaraz bezala, erranez.

Uskaldun sujetak aldiz mintza bite bakhotcha *bere herriko gisa*. Otchoa eta Ainguria mintzatzen dira Semen bezala *ziberotarreza*.

Uhaldek sorho alhorrak  
Gaintitzen tien bezala,  
Ene armadek hartu tiela  
Frantziaren aizo lurrak.

Nik Aita Saintiari dudala  
Bere erresuma kuperatu,  
Eta paganoak plegatu  
Khiristi lege ederriala.

Gerlan hullantik etsaiiek  
Ikhusi diela ene bizarre ;  
Bena eztiela ene bizkarra  
Egundano ikhusi haiiek.

**SOLEIMANEK**

*Allah* dela Jinko,  
*Mahomet* haren profeta;  
Ni hen adorazale eta  
Errege Saragozako.

Buriak khiristietan  
Nik diala motzerazten  
Eta itzaturik ezarten  
Palazioko borthetan.

Bere liburu *Koran*-ian  
Mahometek zelia  
Hitzemaiten deikula  
Khiristi ehaite trukian.

Guri emaitera gerla  
Jin dela jin Frankoak,  
Mahometano guziak  
Hen goitzeko prest girela.

Eta Frankoen-ədolak  
Lurrik gizentiko t:a:a,  
Ezi ahal handia diala  
Goitzeko etsaien Allak.

**GARZIAK**

(Otchoari buruz) :

Eskualdunen errege Jauna,  
Mintza nadien baino lehen,  
Galthatzen dauzut baimena  
Erraiteko bi solasen.

(Otchoak buru kheñu batez baimena  
emaiten du.)

Garzia naiz izenez,  
Giristino on bihotzez,  
Laphurtarra odolez,  
Eskualdun on bat, hitz batez.

Laphurtarrek hartu nute  
Beren gehien izaiteko ;  
Otchoa zureak gaude,  
Bizian hilean zure peko.

**ARROLANEK**

(Charlemañari buruz).

Frankoen errege handia  
Garzia jaunaren ondotik  
Elhe baten erraiteko aldia  
Nahi nukiala zure ganik.

(Charlemañak buriaz baiaren  
kheñia egiten du).

Zure Majestatiari esker  
Bretaña nizala aintzindari ;  
Populu hora chuchen dela eta eder,  
Bethi fidel Jinkoari eta Erregiari.

(Populiari buruz) :

Izan nizala gerlaz gerla  
Bretañaako soldadoeki,  
Eta bitoria hala hala  
Paseiatu dela gureki.

Ezi Jinkoak egin naiala  
Besoz eta odolez azkar,  
Eta nor nahi jin aitziniala  
Behar grado ukhen dela indar.

Gerla maite dudala, bena,  
Jinkoaren etsaiekila,  
Erreligioniaren zuzena  
Hausten dienekila.

Zeren gaizki-egiletan  
Sordeisik eztela izan egundano  
Erreligionia zankho petan  
Ezarten dienak beno.

Egun, bihotza Uskalduneki  
Bethe zaitadala boztarioz,  
Frankoak bezala khiristi  
Eta chuchen direlakoz.

Eta Jinkoari dela galthatzen  
Lehenagorik ere hiltzia,  
Eziez alkharri gerla egiten  
Franko eta Uskaldunak ikhustia.

**ABU-TAHERREK**

Ni nizala Hueskako errege,  
Erreligionez Mahometano,  
Ene buria baizik ihur ere  
Nik eztela maithatu egundano.

Nik eztela adiskiderik mundian  
Bena badela hanitch etsai  
Allahk, sortzeko egunian  
Gerla gizon egin benai.

**ENEKOK**

(Otcheari buruz).

Otchoa zure baimenareki  
Nahi dut egun oihustatu  
Garazi maitea fidelki  
Bethi dudala zerbitzatu.

Ene herritarrak berak  
Hartzen ditut lekhuko,  
Zeren nuen hen nahiak  
Gehien egin, ni, Eneko.

Esku bata Laphurtarreki  
Bertzea Chuberotarreki  
Eskualdun gira oro elgarreki,  
Oro bat zureki eta Jainkoareki.

**GANELONEK**

(Charlemañari buruz).

Zuk nahi delarik Charlemaña  
Nik ere nahi dela erran  
Zer izan dela ene dohaña  
Zure armadan ni sarthu denian.

Zuk eta Frankoek badakiela  
Ene indar eta korajiaren berri ;  
Ni zier fidelki jarraikiko dela,  
Gerlaz gerla, herriz herri.

Hauts baneza ene fidelitatia,  
Nahi dela izan maradikaturik,  
Ni Ganelon Bordeleko kontia,  
Eta enetzañ ez izatia zelurik.

**KHASEN-BEN YUSUFÉK**

Egia ikhasiko ziek eneki ;  
Jinko dela Allah, ni errege morro,  
Eta ziek zien espantoeki  
Asto-phutz eli bat zidiela oro.

Allak tila egiten gizonak,  
Batak errege, bestiak peko,  
Eztela ziek arrazu honak  
Zien zorthiaz urgullu ukheiteko

Ni Allak errege egin naiala,  
Badudala ohore, urhe, plazer franko,  
Bena Allak errege bezala  
Egin ahal nundukiala apho !

**SEMENEK**

Izan hadi apho edo errege,  
Eta biak ere nahi bahiz ;  
Morro lege, ala apho lege,  
Ber gaiza duk hitzez hitz.

Bena nik dakidana duk  
Allak eztiala Jesu-Krist goithuko,  
Eta, nahi baduk eta ezpaduk,  
Hire Allak eztik apho hil bat balio.

Hor entzun ezak egia  
Ziberotarrez Semenek erranik ;

(Otchoari buruz).

Jaun Otchoa. Uskaldunen erregia,  
Eztuta orai egia erraiten nik ?

(Otchooak buriaz bai errraiten du ; Morroek orro egiten deie : *Allah dela Jinko ! Allah Jinko dela !* eta lurra zankhoez joitendie.

**SEMENEK**

Eta nahi baduk borogatu,  
Ziberotarrak eta Laphurtarrak  
Manehecki bertan gutukek juntatu  
Lur pian ezarteko Morro guziak

**OLIVIERREK**

Bi gaiza nik guziz maite dela :  
Frantziako herria eta Arrolan ;  
Frantziaren eta Arrolanen hil nintila  
Nun nahi bena gogo hobez gerlan.

**TURPINEK**

Adiskidiak, Jinkoa dela bera  
Oro photeretsu, chuchen eta handi ;  
Haren lege saintien arabera  
Bizi behar dela bethi.

Eztela lurreko erregetan  
Charlemaña bezañ handirik ;  
Zeren eztela haien artian  
Hura beno khiristi hoberik.

Harek Jinkoaren zuzenak  
Dutiala zinez sustengatzen ;  
Eta khiristi erresumak  
Bethi aitzina emendatzen.

Jinkoa bethi dela othoituko  
Izan dadin luzaz Charlemaña  
Khiristi legiaren hedatzeko  
Aita-Saintiaren kapitaña.

Lege hura bada hedaturik  
Estela izanen injustiziari,  
Ez prabe sabelkor jeloskorrik.  
Ez eta aberats bihotz gogorrik !

#### ANSELMOK

Charlemañaren palazioa,  
Nik Anselmok dela begiratzen ;  
Zombat gora den *ene* ofizioa  
Nihaurek dudala borogatzen.

#### EGIHARDEK

Bakhotchari bego bere ofizioa,  
Turpini Charlemañaren arimaz,  
Anselmori etchiaz kasu hartzia,  
Nik arrankura dela haren mahañaz.

Uskal-herriko ardo honik  
Charlemañari eman neikola.  
*Zalgiñ*, eta *Irulegin* eginik,  
*Ahuzkiko* huretik nahigo dila.

Eman neikola erbiki edo oillaki,  
Jigot edo chahalki entrada,  
Eztodala emaiten ahal aski  
Tchinkhor eta phiperrada.

Jente ontsa ikhasiak erraiten dila :  
« Eguin hon » sartzian, « adio » joaitian;  
Phiperrak dila erraiten hala hala  
Sartzian; « heben niz », « banoa », jal-  
[khitzian.


(Semenez eta soldado ziberotar-  
rez bestiak badoatza treatetik. Petrisantz,  
Bettan, Allande, Pellella, Erramun soldado  
ziberrotarek emaiten die Satanen dantza  
khantatuz :

Tchinkhor eta phiperrada  
Charlemañak bezala jan dezagun,  
Phiperrada mingar bada,  
Gathulu bat hur gaña huts dezogun ;

Eta bizi bizia gero  
Joan nahi balitz kampo,  
Zankhoak zalhiak beitutugu  
Segurki baliatuko zaiku,

Musikak ber ahiria arrahas-  
ten du eta bost soldadoeki Semenek emaiten  
dutu Satanen dantzak, aztalak eñhe artio nahi  
badie.





## **LEHEN PHARTIA**

---

# **IRUÑE MORROEK SETIATURIK**

**Charlemañak hitzemaiten du  
Uskai-Herriari minik ez egitia**

---

### **SCÈNA I**

*Ochoa, Garcia, Eneko, Semen*  
treatiaren erdian *Aillande, Erramun, Bettan,*  
*Pellella eta beste soldado ziberotar zombait*  
treatre zokho batian.

#### **OTCHOAK**

Zien soldadoez, ene adiskidiak,  
Zer berri deitaziet egun emaiten ?  
Gerlaren hañbeste dembora iraitiak  
Ez othe deitzeia bihotzak tchipitzen ?

Morroez azken hirur aste hoieta  
Iruñe hañ borthizki setiaturik,  
Ordu baizik eluke hebentik bertan  
Izan gitian osoki libraturik.

Zer uduri zaizie egin behar dugun,  
Ala hirin barnen etsaiæ eguruki ?  
Ala jalkhi hiriz kampo, zombait ehun,  
Hari gerla emaitera improbistki ?

GARZIAK

Jaun Otchoa zure manamenduari  
Eskualdunak prest ditutzu plegatzena ;  
Oadolaren zuri, arimen Jainkoari,  
Oro ekharriak gaituzu ematera.

Laphurtarrek beiratzen duen aldetik,  
Ez dire Morroak Iruñen sarthuko ;  
Lehenago dituzte beren tokitik,  
Larruñen, mendiak zotukaraziko.

Bainan zuri iduri balinbazauzu  
Morroeri buruz gan behar girela,  
Ene lephoa berme eman naukezu  
Laphurtar bat gibel egonen eztela.

OTCHOAK

Hire eta Laphurtar gizonen ganik  
Enian nik besterik egurikitzen.  
Etsaier joaiteko lehen lehenik  
Ziek zutiet orai danik haitatzen.

ENEKOK

Garaztarrek, zuk eman tokiak, Jauna,  
Begiratzen tuzte ahalaz azkarki.  
Hen ihes. gibela joiteko eguna,  
Nik hitz dauzut ez dela oraino jaiki.  
  
Aisago liteke infidel batendako  
Pharabisuko borthetan pasatzia  
Ezen ez guk beiratzen tugun aldeko  
Murretarik hiri huntan sartzia.

OTCHOAK

Esker deiziet. Eneko, laidatzen hait  
Hire eta hire gizonen indarraz ;  
Ziek bezalakoeki nolaz ez garhait  
Morroak, oto, balitz ere milakaz.  
  
Eta hik, Semen, zer berri bileu deikuk  
Etsaiaren gañen hire soldadoez ?  
Hari buruz joaiteko orena, erraguk,  
Helturik dugurez orai, bai edo ez ?

SEMENEK

Jauna, nik jakin berrien arabera  
Morroak laster dutuzu hurrunturen,  
Zeren orai borogaturik beitira  
Eztirela gure hirian sarthuren.

Beste arrankurarik, entzun dudanaz,  
Gure etsaiek behar ahal dizie,  
Zeren Charlemañareki, diroienaz,  
Laster gerlan ari beharko beitzaie.

Garazi aldetik eta Árnegin gainti  
Diozie horra direla Frankoak,  
Eta egia entzun badut, ingoiti,  
Iruñetik hullan tutzu hen banderak.

Hen eta Morroen tropen erdiala  
Baditit bi gizon atzo igorririk  
Bi oren gabe heben diratekiala  
Fida niz, balinbada berriagorik.

OTCHOAK

Hanitch ontsa hori, bai hire gizonek  
Badiet bethi zankho bezañbat buru ;  
Mezulerrak jin artino, guk, ororek  
Behar dugu armekin egon haiduru.

Agian Jinkoaren laguntzareki  
Behar tugu egun Morroak ohiltu ;  
Erne egon ziteie, orok alkharreki  
Orozbat behar dugu etsaia erhaustu

Ziek zoazte, Garzia eta Eneko,  
Zien soldadoer pharte egitera  
Eguerdi zeñiak izan direneko  
Behar dugula orok Morro ehaitera.

Hi heben berian, Semen, egon hādi,  
Hire soldadoer gerlan erakasten  
Eta mezulerrak heltu bezañ sarri  
Hel izadak zer berri dien ekhartan.

(Oro badoatza salbu Semen  
eta soldadoak.)

## SCÉNA II

Semen, soldado ziberotarrak.

SEMENEK

Ziberotar maitiak, entzun tuzie  
Ziez Otchoak erran tian elhiak ;  
Armak harturik erakuts ezazie  
Zankhoak bezañ hon tuzela eskiak.

Sarri beitateke gerla bat handia,  
Eta Morroak Morroen gaña ebakiz  
Zilatu beharko beitzaiku bidia,  
Dugun egin mustra ezpatak idokiz.

Batak bester buruz oro bi phartetan,  
Morroer gerla emaiteko bezala,  
Herroka ziteie eta orok batetan  
Alkharri emanen duzie batailla.

(Bi phartetan herokak alkharri  
buruz jarten dira.)

#### SEMENEK

Eiskerreko eskia ankan ezarririk  
Zankho eiskerra aitzina ezazie ;  
Beste eskiaz aldiz ezpata harturik  
Gerlaren mustra bat arrunt egizie.

(Musika ari delarik gerlan hasten dira ; haste hastetik malestruki ezpatak erabilten dutie, nola nahi eskuñ behar lizatekianian eisker, eisker behar lizatekianian eskuñ, zombaitek buriak gora eta esku eiskerra ankan etcheki lekhutan buriak aphaltzen dutie eta esku eiskerraz buria begiratzen kolpietarik.)

SEMENEK

Hori da hori da gerlako jestoa !  
Eztie hañ ehiki hartz edo otsoek  
Bortian ehaiten ardia eta astoa  
Nola beitzutie ehoko Morroek.

BETTANEK

Semen Jauna, *bego* ezpata jaunentako,  
Eitz gitzatzie gu gure makhileki ;  
Hurak eskian gerlan gira ariko  
Noreki nahi bardin belhagileki.

Gure aitzinian unguru unguru,  
Makhilak ahal bezañ zalhe erabiliz,  
Pegar bezañ aisa hautsez Morro buru,  
Bide eginen dugu zinkhaz eta chingiliz.

SEMENEK

Dugun arren ikhus zien balentria ;  
Ezpatak utz eta har tzatzie makhilak ;  
Ohart ziteie eztiala bitoria  
Irabazten tonto denak ez zañ-hilak.

(Ezpatak utzirik ororek har-  
tzen dutie makhilak.)

SEMENEK

(Prest direnian.)

Nik ezpata altchatuko dudanian  
Eta oihu batez erranen : — Aitzina !  
Has ziteie oro makhilekin gerlan  
Eginez orroa eta irrintzina.

(Ezpata idekitzen du aphur  
baten burian eta oihu egiten : Aitzina !  
— Arrunt soldatxoak jauziz hasten dira  
makhilen unguru unguru erabilten zin-  
kha egiten dielarik eta oihuz erraiten :  
Fuera Mahomet ! biba Jesu-Krist ! De-  
brien urde muthur beltzak ! Fuera, fuera,  
ifernuko, unkhu geiak ! Fuera, fuera  
Allah, Jinko faltsia ! Biba, biba Jesu-  
Krist gure Salbazalia ! Iao-iao-iao-o-o-o-o  
o-o-o !)

SEMENEK

(Alagrantziareki :)

Bai hik egia erraiten hian, Bettan ;  
Ezpatak ala erreziña khanderak  
Bat egiten die zien eskietan  
Eta makhilan dutuk zien indarrak.

Ni benoa orai hiriko borthala,  
Mezulerren zerbait berri jakiteko,  
Zien artian banunduzie bezala,  
Gerla mustra egiten zidie ariko.

(Badoa treatetik.)

SCÈNA III

Soldado ziberotarrak berberak.

BETTANEK

Adarrian deie Jinkoak idier  
Eman etsaiari buhurtzeko ahala.  
Zakħurrer hortzetan, hoiñetan zaldier ;  
Ziberotarrari eman du makhila.

Irauntsi dugu aski ziek eta nik  
Makhileki gerlako jesto egiten,  
Eta eztugunaz geroz gehienik  
Ari gitian əphur bat libertitzen.

Errak to, Aillande, hōr duka churula ?  
Uñhurtzen hasirik ditiat aztalak,  
Eman ezaguk ahairia berhala  
Dantza ditzagun gustian *Mutchikoak*.

PELELLAK

Hola, hola, Bettan ; erran zahar batek  
Diok, gathiak hurruntzen direnian  
Besta diela sagu eta arrathoek ;  
Tchostakatzeko guk ere ordu gunian.

ERRAMUNEK

Orok gure gehienak maite tugu  
Eta eztateke hen ofentsatzia  
Eginez ororek jauzkaz bi unguru  
Gerlako gure zankhoen zalhetzia.

AILLANDEK

Has gitian arren, dugun'egin erri,  
Zien jauzka, urhats eti unguriak  
Egitzie behatuz ahairiari  
Eta etchekatzie lerdén buriak.

(Aillandek churulatzen du,  
bestiak oro dantzan hasten dira. Haiek  
ikhusi gabe Otchoa sartzen da ; behin  
buria aitzina eta gibel erabilten du esto-  
naturik delakoz, gerro erri bateki hul-  
lantzen da ; haren ikhustiari dantzariak  
bat batetan ukhuratzen dira eta baratzen  
ahalkez buriak aphalturik.)

SCÈNA IV

Berrak, Otchoa.

OTCHOAK

Hau dugu hau gerla suerte berria ;  
Ziberetarrak eztu bere parerik ;  
Hel dakigula egun hunen erdia,  
Entzunen duzie beste ahairerik

BETTANEK

Bai eta gu Jauna, ontsa jauzkatuko ;  
Heben ari guntuzun hoiñen trebatzen,  
Sarri Morroen ondotik joaiteko  
Hurak ehoz eta ohiltuz zoiñ lehen.

OTCHOAK

Zankhoz bezañ zalhe hizala entheleguz  
Plazereki, Bettan, ikhusten diagu ;  
Eta jokha niok hihauen ahoñkuz  
Zaitzala lagunak dantzan abiatu.

BETTANEK

Aithortzen dit. Jauna, balinbada kutsik  
Ni nuzu, ni nihaur, haren egilia.  
Hoiñak benutian kasik uñhurturik  
Nihaurk dit behartu sonu emailia.

Halere zer giren ikhusiko duzu  
Sarri gerlalat joanen girenian ;  
Soldado hoberik segur eztukezu  
Ez zure armadan ez Morroenian.

OTCHOAK

Hori duk gizon gisa elhestatzia  
Hitz hoiek bihotza ditadek hunkitzen.  
Bera zer egin zaizie aitzindaria  
Zergatik Semen ezta heben khausitzen ?

BETTANEK

Jauna, joan duzu hiriko borthala  
Gure artetik atzo igorri zutian  
Mezulerretarik baten bidiala,  
Dudarik gabe heben dukezu bertan.

OTCHOAK

(Sogitez kulizari buruz.)

Uskalduen beste bi aitzindariak  
Morro bateki heltzen beitzaizku hunat,  
Ziek zoazte berhala, Ziberotarrak,  
Hiriko borthetara Semenen ganat.

Erran ezozie nik heben dudala  
Beste gehieneki egurukitzen ;  
Hen hola jitiak agian deikula  
Morroen gañen berri zerbait ekhartan.

(Soldadadoak badoatza biazka,  
ordre hon batetan ; sartzen dira Garzia,  
Eneko eta haien artian morro bat armez  
gabeturik.)

### SCÈNA V

*Otchoa, Garzia, Eneko, Morro prisonerra.*

#### GARZIAK

Jauna, egin dugu gerthakari on bat  
Gure ustez anhitz balio duena,  
Ekhartzen dugu presoner zure ganat  
Morro bat Eskuaraz elhestatzen dena.

Bere ezpatatik eta arrropetarik  
Eztela nor nahi ezagutu dugu ;  
Galde egiozu, horren elhetarik  
Agian zerbait ikhasiren baitugu.

Behin hilerazi behar ginuela  
Eta hiriko borthan hilik itzatu  
Basa ihizer egiten den bezala,  
Enekok eta nik ginuen hitzartu.

Morroak holachet horren ikhustea  
Beldurturik ihesi joan litian ;  
Bainan orhoituz giristino legeaz  
Ezgaituzu luzaz egon gogo hortan.

Zuk horrez in zazu iduri zauzuna,  
Orai zure eskuetan ezartzen dugu,  
Ongi zaikeguzu zuk gogo duzuna  
Zure sententziaren beha gaituzu.

OTCHOAK

Hola behar zunien egin, Garzia,  
Ezi khirstiak eztik behinere  
Idoki behar etsaiari bizia  
Ahal dianian goitzen echo gabe.

MORROAK

Bai eta gutiago bere aurhider,  
Ezi ni Petrisantz, Uskalduna nuzu,  
Barkochen sorthurik ; Semenek Morroer  
Atzo berri bilha ni igorri nizu.

GARZIAK

Ichil adi hortik, inganatzaila ;  
Salhatzen hau ongi hire larru beltzak,  
Debruak bezañ beltz duk begithartea,  
Hire althian aingeru tuk Barkochtarrak.

PETRISANTZEK

Othian eztakizieia, jaun honak,  
Inkhatz egiler bertan beltzten zaitzela  
Esku eta begitharte churienak  
Eta halere ber gizonak direla ?

Othian eztakizieia orano  
Mintzaje Uskara gihaurena dela,  
Ihurk, ez debriak berak egundano  
Uskara ontsa ikhasi eztiala ?

Sinhets dezazien egiaz nizala,  
Sortzez Uskalduna, bihotzez ere bai,  
Erakhar zazie gure aitziniala  
Semen Jauna, harek ezaguturen nai.

Aldiz kapa hunek eta tinte beltzak  
Morro batentako har-azten banaie,  
Hur tchorta batek eta barneko arropak  
Morro nizan ala ez salhaturen die.

OTCHOAK

Munduko chaboak eta hurak oro  
Bildurik ere, eztiek churituko  
Sortzez beltz dena, Bohame ala Morro ;  
Ukhuz adi, gero haigu sinhetsiko.

PETRISANTZEK

Otchoari.

Jauna, ni ukhuziko nizan artian  
Zuk ikhus-azu zer den izkiribu hau ;  
Asmatuko duzu hortarik zer nizan  
Aphur bat baniz ere bistala maskau.

(Emaiten deio izkiribu bat eta  
badoa Garziak eta Enekok lagunturik  
treate zokho batiala ; han behar den  
dembora hartūrik, idokitzen du mihise  
oihalez den Morroen usatu kapa churia,  
eta chahatu ondoan-eskiak eta begi-  
thartia, oihal hartan chukatzen tu. Ber  
demboran Otchoa, botz antsiatu bateki,  
eskian dialarik Petrisantzek eman izki-  
ribia mintzo da populuari buruz.)

OTCHOAK

Populiari :

Hau dugu hau solaz espantagarria !  
EZ jakin nor dugun gure aitzin an !  
Larruz eta arropaz etsai uduria,  
Aldiz adiskide bere mintzajian !

Gu bezala Uskaraz mintzatzen delakoz  
Ni ekharririk niz haren sinhestera ;  
Ezi Uskara izanen da bethikoz  
Uskaldunentzat eta haien berbera.

Uskara maitia, mintzaje zaharra  
Bost mila urthe huntan aitek mintzatia,  
Uskara, hitan duk bethi gure indarra,  
**Gure ohoria, gure izatia !**

Hi gabe nor leite mintzo Uskaldunez ?  
Hi gabe zertako ginante Uskaldun ?  
Hi gabe mundiak, ere baginenez,  
Etzakiken atzo, etzakiken egun.

Uskara maitia, amaren bulharrak  
Ezniareki gure zañer emana,  
Jo beza Jinkoaren beso azkarrak  
Hi eta bere ama ahatzten tiana !

(Izkiribiaren kacheta hausten  
du eta so bat egiten leterari erranez :

Bena dugun pharte har letera hunez ;  
Españako Morroen erregiari  
Igorririk da gure setiazalez....  
Haren ganik galthatzen die sokhorri....

(Garzia, Eneko eta Petrisantz sartzen dira, Otchoaz ikhusirik izan gabe, eta beha egoiten dira.)

OTCHOAK

(Pegiak eta eskiak zeliari buruz) :

Jinko Jauna milatan zutut laidatzen !  
Fidatu baginen kampoko itchurari,  
Krima izigarri bat ginizun egiten  
Bizia idokiz gure aurhidiari !

Zure Probidentziak laguntu nizu  
Ogen gabe baten ez hilerazteko ;  
Bethi zuri fidel izan nahi nuzu,  
Othoi hel zakitzat nik behar orduko.

(Irakurten du zinez :)

Izkiribiak dio : « *Igor etzagutzu  
Bihar arratseko hamar mila zaldun ;  
Eta etzi-danik Iruñe eztukezun  
Haboro Khirsti ez haboro Uskaldun !*

*Otchoaren gana bihar bagoatzu  
Alegia bakaren eskentzera ;  
Uskal gehienak deithuren titzugu  
Aihari batetan bake sinatzera.*

*Her emanen tugun jaki edariak  
Oro beitirateke phozoaturik,  
Halaz hilerazirik aitzindariak  
Iruñe bertan dikezugu harturik.*

*Eztizugu utziko bakhotch bat bižirik  
Uskaldun gehien edo aphezstan,  
Eta hen ororen buriak mozturik  
Leherturen tugu zaldi zankho petan.*

*Uskal-herriko jente gehitiari  
Bi gaižatan emanen dugu haitia :  
Ukho egitia bere Jinkoari  
Edo ezpataz chorik iżatia.*

*Hanko elizak zerra eražiko tugu  
Edo hez ostatu elibat eginen.  
Eta non beitie Jesus adoratu,  
Gu han berian ontsa libertituren.*

*Uskaldun herriak dutugu iżeneż  
Legez eta mintzajeż khanbiatuko ;  
Uskaldunak iżan ere badieneż  
Geroan ihurk ere eżtu aiphatuko.*

*Uskaldun haurrak dutugu eraikiren  
Mahometanoen legen arabera,  
Eta ekharriko beren jinkoaren  
Eta beren aita-amen arnegatzen*

*Allah da Jinkoa, Mahomet profeta,  
Hurak berak tugu behar adoratu ;  
Hala hala bethi legia lege da  
Eta legiari behar da plegatu.»*

(Belharikatzen da Otchoa eta  
begiak eta besoak altzaturik, erraiten  
du zeliari buruz :)

Esker deizut Jaona, zeren duzun egun  
Baliatu gure althe zure indarra !  
Zuri esker bethi badukezu Uskaldun,  
Zuri esker bethi biziko duzu Uskara !

Eta ere bethi, Uskaldun bezala  
Uskalduna izanen duzu khiristi ;  
Egun bezala othoi zuk detzatzula  
Lagunt Uskal-herriko semiak bethi !

(Chutitzen da eta ikhusten  
dutu Garzia, Eneko eta Petrisantz.)

### GARZIAK

Petrisanzi eskia eskentuz :

Ahalgeturik nuk hire aitzinean  
Barkha ezadak ene herramentia,  
Ezarak hire eskua ene esku an  
Eta ahatz ene lehen gogokentia.

### OTCHOAK

Petrisanzi, besarkatzen dialarik :

Nik aldiz besarkatzen hait gogo honez,  
Galtzetik begiratu gutialakotz ;  
Bethi ohartuko nuk hire lan hunez,  
Eta ontsa saristaturen hait hortakotz.

Bena erraguk nola ahal izan dian  
Izkiribu hau hire eskietaratu,  
Dudarik gabe hi errisku handian  
Hunengatik izan behar hiz khausitu.

### PETRISANTZEK

Otchoari.

Jauna, esker deizut zure elhe hoiez,  
Zuhurtziak berak zutu zu bulkatzen,  
Eta badakizu soldado tchipiez  
Gehienez bezainbat arrankuratzen.

Jaun Garzia bera mintzo zen zuhurki  
Ni sinhetsi nahi enundialarik ;  
Ni etsai izan banintzan egiazki  
Enikezun merechi pharkamenturik.

Bena eztiroket ahatz Jinkoari  
Zor deitzodala eskerrik handienak,  
Harekbeitutu gure bizitziari  
Emaiten lagungoa behar dienak.

Beraz, atzo goizañoren bakhotchian,  
Artzañ baten chamar luze bat jauntsirik,  
Eta makhila gorderik haren pian  
Nihaur hurruntu nunduzun Iruñetik.

Begithartia eta eskiak beltchez  
Joan beno lehen tintatu nititzun ;  
Eta gero heltzen ahal zeiztadanez  
Jinko Jaunari gomendatu nunduzun.

Bide egin ondoan bi orenez nonbait  
Morro saldo bat han hehen lo utzirik,  
Hen tropen haintila helturik nolapait  
Zuhañ baten pian nunduzun jarririk.

Huna non zaldun bat heltzen den lehian  
Eta baratzen ene ikhustiareki ;  
Makhila tinkatzen nilarik eskian  
Erran nion beno zalhigo niz jeiki.

Morroak manhatu deit erran dezadan :  
« Fueras Jesu-Krist eta biba Mahomet ! »  
Nik gogotik ihardetsi deiot bertan :  
« Biba Jesu-Krist eta fueras Mahomet ! »

Ordian nahi izan nai jo bere ezpataz,  
Bena nik eror-erazi dut zalditik  
Eta hautse deiot buria makhilaz  
Segur ezkapi beniz ederretarik !

Ikher eta hartu deiot izkiribu  
Zuk, Jaun Otchoa, eskietan duzuna ;  
Gorde dut haren khorpitzə eta cherkhatu  
Atherbe han igaraieteko eguna.

Gero barda haren kapaz beztiturik  
Berri igaran niz Morroen erdian :  
Kapa harekin eta nihaur belzturik  
Nork Uskaldun baten hartuko nundian ?

OTCHOAK

Jinkoak hedatu du bere eskia  
Egun ageriki gure laguntzeko ;  
Ukhen dezagun gerla ala bakia  
Zeliak ezkutu galtzera eitziko !

SCÈNA VI

*Berrak, Semen.*

SEMENEK

(Lehian sartzen delarik).

Hirur errege Morroak, Jaun Otchoa,  
Heltu dira zure palazioala  
Eta nahi leikezie egin galthoa  
Zurekilan elhestatzeko berhala.

Bakezko bandera churia harturik  
Galthegin dizie hirian sartzia,  
Eta nik hen gogoen berri jakinik  
Hon hartu dit zure ganat hen hertzia.

Nik ukhen tudan berrien arabera  
Frankoen armaden hunat hullantziak  
Ekharten titzu gurekin baketzena,  
Aholku honik eman beiteie lotsak.

OTCHOAK

Lotsaz beno hobeki faltsukeriaz  
Dutuk bulkaturik errege Morroak ;  
Bena Jinkoak bere Probidentziaz  
Desegiten tik faltsien detse erhoak.

SEMENEK

Petrisantzi :

To, hi heben Petrisantz, hasten nundian.  
Hire eretzian arrankura hartzen :  
Eta hire ikhustia, beste mundian,  
Ni hil ondoan nian egurikitzen.

OTCHOAK

Semeni :

Berak erranen deik zer men handiari  
Ezkapatzen giren horren lagungoaz.  
errege Morroen galther faltsiari  
Ihardesten diat bakezko itchuraz.

Petrisantzeki joan eta erran ezek  
Begitharte ahal bezañ hon bateki,  
Heben berian Uskaldun gehienek  
Bi hitz igaranen dugula haieki.

(Semen badoa Petrisantzeki).

SCÈNA VII

*Berrak salbu Səmen eta Petrisantz.*

OTCHOAK

Etzutian Jinkeak gaizak hobeki  
Gure althe ungura erazten ahal;  
Orai behar dugu mintzatu zuhurki,  
Aiten asmu zaharra eztezagun gal.

Arrañik ezta sartzen pertoletara,  
Ez tchoririk chilintchautzen chederari,  
Hañ ontsa nola Morroak saretara  
Beitutugu guk sar-eraziko sarri.

Lehenik utzi ditzagun elhe eder  
Aho bethez nahi dienə erraitera,  
Eta ihardesteko hen eszantoer  
Doi badukegu berek egin letera.

GARZIAK

Jauna guk baino hobeki badakizu  
Zer behar den erran, zer behar den gorde,  
Zuk erranak guk onharturen ditugu  
Zuhurrena eta argituena baitzare.

ENEKOK

Erran batek dio gezur errailea  
Bere gezurrak galerazten diala :  
Zoin egiati den zaharren elhea  
Algarrekin asmatzen dugu bérhala.

SCÈNA VIII

*Berrak, Morroak, Semen, Petrisantz eta soldado ziberotar zombait garda bezala.*

(Lehenik Otchoaren bailet bat jiten bandera churia eskian).

BAILETAK

Otchoari :

Huna, jaun Otchoa, errege Morroak  
Abu-Taher, Soleiman-el-Arabi,  
Eta Khazen-ben-Yusuf izenekoak.  
Jinkoa zourekin izan bedi bethi !

(Gur bat Otchoari, banderreki salutatzen du eta badoa. Musikak emaiten du Turk erregen sartziaren ahairia eta Morroak sartzen dira lehenik, gero hen ondotik Semen, Petrisantz eta beste ziberotarrak).

SOLEIMANEK

Otchoari.

Bakezko geietan zurekin Otchoa  
Elhestatu nahiz gu heltu girela ;  
Uskaldunareki baketzen Morroa,  
Guk ziekin adiskide behar dela.

Ni jin dela ene bi lagun hoieki  
Sendimentu honez osoki betherik ;  
Zier eta Uskaldunér Allak daki  
Ezteiziegula nahi honik baizi'k.

OTCHOAK

Uskalduner bere lege zahar batek  
Manhatzen dik batzarri hon egitia  
Nori nahi bardin hen etchera jilek  
Merechi baleze ehorik izatia.

Hire lagunak eta hi jar ziteie,  
Ziek ere beste gehien Uskaldunak ;  
Zer bake nahi duzien errazie  
Beha gira ni eta ene lagunak.

(Jarten dira oro).

SOLEIMANEK

Hoberenak direla gure detsiak,  
Ziekin bake guk egin behar dela  
Zeren ziek eta gu adiskidiak  
Gerlan beno hanitch hobeki girela.

OTCHOAK

Khiristi lege batek manhatzen dikuk  
Protsimoari hon desira dezagun ;  
Jinkoak detsala zer nahi beiteikuk  
Ber gaiza agi dakizien zier egun.

Zien detsiak hon, guriak ere bai,  
Zer galthegiten ahal dugu hoberik ?  
Ez ez gitjan izan alkharren etsai,  
Ezi bakiak eztik bere parerik.

SOLEIMANEK

Hartakoz gu hurruntuko Iruñetik  
Eta ziek utziko gu joaitera  
Haboro eman gabe guri gerlarik ;  
Ziek heben nausi egonen berbera.

Bakia gurekin ziek sinatuko  
Gure g̃anat aihaitera lauak jinez,  
Ziekin ardo honik guk trinkatuko  
Eta gozatuko ase bat eginez.

OTCHOAK

Bizi bizia :

Hire bakiak eztik ondatz chuchenik,  
Etzian balio jin hentin hortako ;  
Eztiagu nahi holako bakerik ;  
Aseka aldiz bego zakurrentako.

SOLEIMANEK

Ez khecha, Otchoa, gu nahi bakelu.  
Eta zier eman zuzenezko dena ;  
Nik sinhesten zier ez aski eskentu,  
Bakia dela ororen beharrena.

Zuk izkiriba zer galtha nahi dela  
Eta jin guri gaur sinaeraztera ;  
Gu sinatzera ekharririk girela  
Ziek jin gurekin sarri aihaitera.

OТCHOAK

Jinen gutuk hitzemaiten balinbaduk  
Guri herri Uskaldunen utzultzia,  
Hitzemaite hori heben sina zaguk,  
Har edo eitz, zier orai haitatzia.

SCÈNA IX

*Berrak, ziberotar bat.*

ZIBEROTARRAK

(Lehian Otchoari).

Jaun Otchoa, Charlemaña erregia  
Helturik lauhazkan bere zalduneki  
Heben duzu, galthatzen dizu sartzia,  
Mintzatzeko Uskaldun gehieneki.

Batbatetan uhalde batez bezala  
Bazterrak bethatzen dutuzu Frankoez  
Eta Charlemaña jin duzu berhala  
Arrunt zurekin elhestatu beharrez.

Harekila tutzu Arrolan handia  
Bere adiskide Olivierreki ;  
Ganelon eta Turpin aphezkupia  
Eta beste bi jaun orano haieki.

OТCHOAK

Errok Frankoen errege handiari,  
Zer nahi geietan jirik izan dadin,  
Ala baketiar, ala gerlakari,  
Batzarri hon bat badukiala bardin.

SOLEIMANEK

Otchoari :

Otchoa dudarik gabe Charlemañak,  
Hañbeste tropekin hullantzen denian,  
Nahi tila Morro eta Uskaldunak  
Bortchaz czari bere legereñ pian.

Haren jitiak ezgutila lotsatzen.  
Eta behar bada España guziko  
Morroak hamar bat egun beno lehen  
Bilduko direla hari buhurtzeko.

Bena ziek gurekilan a diskide  
Eta eginen gaiza bat alkharreki ;  
Charlemaña jiten dela gerla bide,  
Hura dugun echo bere laguneki.

Gero haren eta lagunen buriak  
Urthukiko hen tropen aitziniala ;  
Eta lotsaturik soldado Frankoak  
Gure troper ihesi joanen berhala.

OTCHOAK

Ene odol Uskaldun eta Khiristia  
Gatzatzen zitadak hire elhiari ;  
Etziok haizu holako egitia  
Ez Uskaldunari, ez Khiristiari !

Traidoreki jenten hilerazte hori  
Bego Bohamen eta Morroentako.  
Leial izatia bardin etsaiari  
Uskaldunak bethi izan dik legetako.

SCENA X

Berrak Charlemaña bere khortiarekin.  
(Lehenik baileta jitén da eta  
joaiten Scèna viii<sup>en</sup> bezala.

BAILETAK

(Otchoari :)

Huna, Jauna, Charlemaña Erregia,  
Haren lloba Arrolan, Ollivierreki,  
Ganelon eta Turpin Aphezkupia.  
Jinkoa zurekin izan bedi bethi !

(Padoa. Musikak emaiten du  
Khiristi erregen sartzeko ahairia Char-  
lemaña eta haren lagunen heltziareki.  
Otchoa eta treatian direnak oro chuti-  
tzen dira).

OTCHOAK

(Joaiten delarik Charlemañari gur egitera eta eskiaren tinkatzera :)

Frankoak, jauna, Uskaldunen artian,  
Bethi honki jinak izanen dutuzu,  
Eta errege Otchoaren etchian  
Charlemaña bere etchen bezala duzu.

CHARLEMANAK

(Eskia tinkatzen deiolarik Otchoari :)

Uskaldunen fama hona, aspalditik,  
Otchoa, heltu ik dela ene gana ;  
Jinkoak ditzala zelu gorennetik  
Bethi lagunt Frankoa eta Uskalduna !

OTCHOAK

Erregiak alkharren aurhicle tutzu  
Uskal erran zahar baten arabera ;  
Hartakoz Uskaldunak fida gututzu  
Zurekin zure geiez elhestatzera.

Tzekoz Morro hoiek dizie ukhenen  
Zien heltziaren gatik zerbait beldur ;  
Heben ari zitzkutzun bake eskentzen  
Elhe hon erranez, egia edo gezur.

SOLEIMANEK

Guk ez gezurrik erraiten behinere  
Egiaz bake nahi Otchoareki ;  
Charlemaña guri etsai jinik ere  
Gu ez beldur, Allah beltate gureki.

CHARLEMANEK

Ene jitiaz eztela izitu behar  
Gaizki egiten dien erregek baizik ;  
Zer ere dela lege gaisto edo tzar,  
Nik chuchentzen dela edo khentzen lurre-  
[tik.]

Nik hedatzen dela khiristi legia  
Eta harez bizitze eta usantcha honak ;  
Jesu-Krist dela egiazko argia  
Harek berak tila salbatzen gizonak

OICHOAK

Zahar titzu erroak gure artian  
Zuk hedatzen duzun lege Jinkozkoak ;  
Ezi, lehen mentiaren urbentzian,  
Khiristi zututzun gure burhasoak.

Uskal-herriaren konbertiazteko  
Jondane Phetirik igorri zitzun  
Bi saintu : Saturnin eta Zerazio ;  
Arrunt populia khiristitu zuzun.

SEMENEK

Ziberoan laurgeren mente hastetik  
Andere Santa Grazi aiphaturik da ;  
Hala hala bi saintu jinik geroztik :  
Sen Grat eta ander~~e~~ Santa Riktruda.

ENEKOK

Sant Honest Iruñeko aphezpikuak  
Saturnino Tolosarat gan ondoan,  
Emanez eskuaraz bere predikuak  
Salbatzen zituen arimak saldoan.

GARZIAK

Nork ahatz lezake andere Urosa,  
Esku, oinak pikatuz, Morroek hila ?  
Kristok zeruan hartu du bere esposa,  
Bainan guk ez ahantz hoiek hil dutela !

(Morroak eskiaz erakusten dutu.)

### CHARLEMANAK

Eho diela orano Morro hoiiek  
Ene askazi Frizio deitzen zena ;  
Behar tiela orai Jesusen etsaiek  
Oro phakatu, heltu dela orena !

### OTCHOAK

Areta, jauna, ez dutuzu orano  
Khiristi odolez aski ontsa aserik ;  
Zure lagunekin zure ehaiteko  
Komersa zizien doidoia azkenik.

### SOLEIMANEK

Gezurra dela hori gu ezkirela  
Otchoak erraiten den bezañ krujelak ;  
Uskaldunek berek galthatzen ziela  
Hel eta echo behar zela Frankoak.

### SEMENEK

Hizan bezalako gezurti handia !  
Ezagutzen ditiagu hire geiak ;  
Bere gezurrak saltzen dik gezurtia  
Eta azkenian zuzen dik egiak.

Gezurrez zidie bake eskentzera  
Hi eta hire lagunak hunat heltu ;  
Gaur ez aihaitera, bena bai hiltzera,  
Uskal gehienak dutuk khumitatu !

GARZIAK

Zuek nahi zintuen gu hil ondotik  
Eskuara maitea eta Eskualdun markak  
Khendu legen bidez gure Eskual-herritik  
Bainan ongi laguntzen gaitu Jainkoak !

ENEKOK

Hamar mila zaldunen laguntzareki  
Gei zintuen Eskual-herrria suntsitu,  
Aphezak hil, eliza guziak hetsi  
Edo haiez egin treate edo ostatu !

OTCHOAK

Bai eta beren aita eta amarenak  
Haur Uskaldunak ezpalira bezala,  
Beren aita amen kontre hen bihotzak  
Gei zuntien moldatu, ezteia hala ?

ABU-TAHERREK

Ziek eta zien Kristo delakoa  
Belhagile izan behar duziela ;  
Ezi istoria bat molde hortakoa  
Ezinago ontsa phentsaturik dela.

OTCHOAK

Ez ez gutuk, gu ez Jesus gure Jauna  
Bata ez bestiak belhagiletarik ;  
Jesus Jinko beita, egun Uskalduna  
Begiratzen dik Morroen saretarik.

(Idokitzen du kapatik hen  
letera eta erakusten dere berer erranez :)

Letera hau ezagutzen duzieia ?

(Emaiten dero Charlemañari.)

Horra, jaun Charlemaña borogantcha bat  
Salhatzen diana zer zen hoien geia,  
Zien eta goure etzian orobat.

SOLEIMANEK

(Bere lagunekin erhoturik  
bezala bi unguru egin ondoan :)

Allah ! Allah ! hola behar guniala  
Khiristiez orai hatzemanik izan !  
Bena **elas** ! hori jin beharra zela !  
Gu hirurak orai **sarthu** dela saltsan !

OTCHOAK

Charlemaña zihauri eizten dizugu  
Sententziaren emaiteko zuzena ;  
Hola egiliak merechi likezu  
Suplizioetan hiltzerik luzena.

CHARLEMANAK

(Utzuliz Otchoari letera.)

Gu eta ziek ber gisan trataturik,  
Morroek ziek eta gu eho nahi,  
Ni gerla egitera egun hunat jinik,  
Dugun eman hoien zorthia gerlari.

Ni berbera hoiekin gerlan ariko,  
Eta horik **arme**z garhaitu ondoan,  
Bertan Frantzialat arra-utzuliko  
Eta ziekin bethi izanen bakian.

OTCHOAK

Jauna, gure ezpatak Morroen odolaz  
Orai berian egarri lutuketzu ;  
Bena zuk erran duzun bezala, gerlaz,  
Gure ohoria chahaturen duzu.

Gerla hortan pharterik ez ukheitia  
Zure hitz baten truku honhartzen dugu :  
Hitz-emazu gure lurren ez hartzia  
Eta zihaur gerlan utziko zutugu.

CHARLEMANAK

Ehiki, Otchoa, hitzemaiten dela  
Guk ez zien herrietarik hartuko ;  
Orai-danik biak aurhide girela ;  
Eskiak eman horren borogatzeko.

(Eskiak tinktinka dutielarik,  
Charlemañak dio aitzina :)

Jinkoa, saintiak, ainguriak berme,  
Frankoek Morroak gerlan garhaituko ;  
Eta Uskaldun herri, Uskaldun seme  
Bakhotch bat ez gaizki guk erabiliko !

(Berhezten dira eta Ainguria

bat batetan agertzen da eta khantatzen  
du khiristier buruz :)

### AINGURIAK

Jinko oro photeretsiak  
Igorten nai zien gana ;  
Lurreko Erregen Nausiak  
Honhartzen du zien zina.

Jinkoak ezagutzen dutu  
Morroen gaistokeriak ;  
Hen goitzeko orena da heltu  
Irets betza iferniak !

Jinkoak ezagutzen dutu  
Uskaldunen dohañ honak ;  
Bethidanik dutu laguntu,  
Zeren diren hañ chuchenak.

Jinkoak ezagutzen dutu  
Frankoen armen indarrak ;  
Haiez nahi dutu garhaitu  
Morroen armada azkarrak.

(Charlemañari :)


Bena ohart adi, Charlemaña :  
Jinko Jaunaren besoa  
Pheza litek Frankoen gaña,  
Trompa baheza Otchoa.

OTCHOAK

(Zeliari buruz :)

Esker deizut mezu horrez, Jinko Jauna ;  
Gure egitaten jujia zira zu ;  
Chuchen den ala okher eginen duguna  
Ikhuisiren eta jujaturen duzu !

*(Lehen phartiaren urhentzia.)*



## **BIGERREN PHARTIA**

---

**USKALDUN BESTAK**

**ALTABIZKARREN**

**ELIZA-BESTA ASTELEHENIAN**

---

**Otchoak jakiten du Charlemañak  
hitza hautse diala**

---

### **SCÈNA I**

(Otchoa bere gehien lagunekin jarririk da treate zolan, sargiari buruz. Haren aitzinian, primaketan pharteliant direnak.)

**OTCHOAK**

(Chutitzen delarik, populiari :)

Herritar maitiak, beste urthez bezala,  
Saldoan aurthen ere heltu zidie ;  
Zien erregiak agur bat leiala,  
Hastetik bihotzez emaiten deizie.

Uskaldunak, gure usantcha zaharrer  
Bethi behar dugu osoki etcheki ;  
Guri aitek bezala guk ondokoer  
Heleraz ditzagun ahalaz fidelki.

Fedia, Uskal-herria, eta Uskara,  
Horra gure aitek egin utzitiak ;  
Ekharry zutie besta hoietara  
Uskaldun agertzeko nahikuntiak.

Jinkoarena beita igante eguna,  
Egun hora oso atzo eman dogu ;  
Elizan laket da bethi Uskalduna,  
Han Jinkoa bere althe ezarten beitu.

Egun eliza-bestia astelehenian  
Uskaldun deskantsier emaiten gira ;  
Didoia pelota partida gunian  
Zointan zoin laketago izañ beikira.

Pelota delakotz gure jokietan  
Maitena, ederrena eta zaharrena,  
Pelotakari hobenen eskietan  
Ezarten dugu saririk handiena.

Bi hobenen diren ehun urhe phezik  
Beren artian phartituko dutie  
Junes Chuberok eta Ganich Manechak ;  
Bestek hamarna urhe pheza dukie.

Orai izanen dira beste jokiak,  
Uskal herriko usantchen arabera,  
Dantzak, zinkhak, koblakak eta khantiak,  
Nahi direnak jin bite dantzatzera.

(Dantzariak hullantzen dir,  
eta emaiten dutie *Mut:hikoak* eta *Satanen dantzak*, edo beste, gizonen beren arteko, dantza zerbait, musika ari delarik.

Ber demboran, Otchoak bere lagunekin hitzartzen du zoiñ zoiñ sariak eman behar diren.)

### OTCHOAK

#### Urhentzián :

Zalhenak eta khorpitzez lerdennenak  
Barkoch, Ligi eta Maule izan dira,  
Dantzarien artian ziren gaztenak ;  
Haientako badut ehuna libera.

Orai zinkhen oihu erdiragarriak  
Iharrausi betza gure beharriak ;  
Heiagora, plañu, mehatchu et'erri,  
Zinkha bakhotch bat da hoik oro uduri.

(Sei zinkha egile hullantzen  
dira eta zinkhak egiten dutien dembo-  
ran, Otchoak hitzartzan du bere lagu-  
neki haien saristatziaz.)

### OTCHOAK

(Ichiltu direnian, phausu tchipi  
batet ondotik :)

Gerlarik bagunu deihadar hobenak  
Baguntuke zinkha egile hoieta ;  
Bardin ontsa ziren lehen eta azkenak,  
Sei urhe pheza phartitzen tut seietan.

Heltu da kobla eta khantien aldia ;  
Dugun ikhus zombat eder den Uskara,  
Bost mila urthe huntan aitek mintzatia,  
Chahu eta oso heturik gutara.

Aitek Fediaz beste egin utziteten  
Gure mintzajia da baliosena ;  
Uskara gozo da ezpañ ororetan,  
Musika bat aldiz koblaturik dena.

(Koblakari bat hullantzen da,  
eta irakurten du, goratik, ahal bezan  
klarki, gur bat Otchoari egin ondoan.)

1<sup>en</sup> Koblakariak

(1) PELLO INKHAKINA

---

Jente beharrak ziren  
Pello inkhazkina  
Eta haren emaite  
Josefa Martina.  
Beren etchola zien  
Phezoez egina,  
Eta janhari hotza  
phastetch'ta tchardina.

Neguko arrats batez  
senhar emaztiak  
Greutu beitzutian  
tchardina jatiak :  
« Gu bethi miserian,  
asian bestiak,  
Okher dira zirotien  
holako legiak. »

---

(1) Heben emaiten dutugan kob etarik zonbait la-phurtarretik ziberotiarra la-utzulirik oira. Liburiaren urhentziaren ezarten dutugu, agertu diren bezala, laphurtarrez, hen egilen sinadurekin.

Sorgin bat sartzen zaie  
leihotik barnera :  
« Heltu niz hirur gaizen  
zier emaitera.  
Galtha tzatzie hirur,  
berbez, bat bedera,  
Nahi den bezañ handi,  
deus etzait sobera.

Pello oihuz hasten da  
suthondo zokhotik :  
« Ah ! nik tripot bat banu  
jan niro gogotik ! »  
Tripot bat erorten da,  
pamp ! chiminiatik.  
Jan hon bat egin dezan  
Pellok oraikotik.

Martinak senharrari :  
« Zeri buruz giren !  
Ehakiana zerbait  
hoberik galthatzen ?  
Balinba tripot hori,  
hañ luze, hañ gizen,  
Sudurretik baleikek  
arrunt chilinchautzen ! »

Martinak galthro hori  
dia bai aiphatu,  
Pellori sudurrian  
tripota da lothu,

Debruz eta karakhoz,  
nahi luke khentu;  
Sudurrarekin baizik  
deslothuko eztu.

Igante eguna zen  
biharamenian,  
Oro erriz zereitzon  
haren ikhustian :  
« Pello zer mila debruk  
jo hai sudurrian ? »  
Pellok : « Utz nezazie,  
othoi, ni bakian. »

Haur guziak ondotik,  
chakhurrak champhaka ;  
Haren sudur handiaz  
orok zer kalaka !  
Etcherat gorde nahiz  
badoa lasterka ;  
Han ere emaztia  
hari so trufaka !

Azkenian Pellori  
jin da gogoala  
Hirurgerren galthorik  
egin eztiala.  
« Sudur soberakin hoi,  
dio, gal dadila ! »  
Tripota sudurretik  
jauzten da berhala.

Huna alegia hortan  
den erakaspena :  
Hanitchen gutizien  
funts-gabetarzuna.  
Ezpada ere handi  
gure hontarzuna,  
Berere dugun goza  
den bezala dena.

ZALDUBYK eginik.

(Irakurzaliak gur egiten du  
Otchoari, eta emaiten deio irakurtu dian  
izkiribia. Populiak esku zaparta.

Beste koblakari bat hullantzen da,  
eta irakurten du, Otchoari gur bat egin  
ondoan.)

## 2<sup>en</sup> Koblakariak

### **KHUIA ETA ZIA**

---

Haitz baten itzalian,  
ontsa jan edanik,  
Perttoli jakitanta  
zagoen etzanik :  
« Haitzian zia eta  
khuia non emanik ! »  
Etzeion ontsa hori  
Jinkoaren ganik.

« Ni izan banintz Jinko, »  
zion bere beithan,  
« Khuia emanen nian  
haitz adar hoietan ;  
Zi tchipi hori aldiz  
gisago zatian  
Khuiaren orde hortche  
lurrian herrestan. »

Perttoli jakintsuna  
hitz hortan lothu zen.  
Huna non zi bat zeion  
sudurrila erorten.  
« Atch ! dio zerk nai hola  
iratzar-erazten ?  
Khuia balitz erori  
aisa nintzan hiltzen ! »

Jinkoak egin gaizak  
chuchen dira denak,  
Handienak bezale  
orobat mendrenak.  
Mundu huntan Jinkorik  
nahi eztienak,  
Guzien okhertzeko  
dira hoberenak.

ZALDUBYK eginik.

(Populiak esku zaparta ;  
irakurzaliak gur bat eta izkiribien  
emaitia Otchoari.

Beste koblakari bat hullantzen da,  
gur bat egiten du Otchoari eta irakurten.)

### 3<sup>en</sup> Koblakariak

## AITAÑI ETA ARRA-HAURRA

Behin, aitañi chahar bat,  
bere etch'aitzinian,  
Ikhusi nian jarririk,  
haur bat bere khantian ;  
Alhorretan etchenkoak  
ari ziren lanian.  
Aitañi et'arrahaaurra  
berberak ziren etchian.

Ezta mendi kukuletan  
elhurra churiago,  
Aitañik bere burian  
bilhoa zian beno.  
Bena bozki eta chuchen  
mintzo beitzen orano,  
Choratzen zen arrahaaurra  
hari beha eta so.

Aitañik erraiten zeion :

« Zuk, ene haur maitia,  
Jadanik ikhasi duzu

Jinkoaren legia :  
Nahi deizut erakutsi,  
lurreko bizitzia  
Zer gisaz ukhenen duzun  
egun honez bethia.

Goiz, arrats. bethi debotki,  
othoi zazu Jinkoa ;

Eta etchek ait'amentzat  
aphaltarzun osoa.

Haiiek beitie zuzena  
zuri manhatzekoa,  
Her obedituz dukezu  
bitezke bakezkoa.

Arth'izarra agertzian,  
jeiki zite ohetik,

Zeren ezpeitu egunak  
oren ederragorik ;  
Bas'ollarak ordian du  
khantatzen oihanetik,  
Bai'ta buria tchoriak  
altchatzen hegala-petik.

Ihize hen ernatzian  
eman zite lanari,  
Lana beita ehiago  
goizik hasten denari.

Boztariatuko zira  
ekhi-agertzia,  
Sorho-lilien urrinen  
zu-ganat heltziari.

Mahañian lagunekin  
jaten has bezañ sarri  
Izan zite alagera  
bai eta maithagarri.  
Trist'edo lotsor denari  
egineraz zaz'erri  
Honki egitek'ez izan  
behinere-buhurri.

Uskarasko mintzatzia  
etchek'azu mihian ;  
Ezpeita ederragorik  
agertu zelupian.  
Nola arrano zaharra  
tchitch'ezdeusen artian,  
Hala da gure mintzoa  
best'ororen erdian.

Eskual anderetan dira  
baliosenak bethi :  
Erlia bezañ langile  
ardia bezañ ezti ;  
Igaraiten zirenian  
hogei urthetan goiti  
So egiozu hullantik  
Halako den bati.

Azken urthia ezpadu  
aurthen ene biziak,  
Nik erakutsiko deitzut  
Uskal dantza-jauziak.  
Ezi zahar baniz ere  
ez ditit ahatziak.  
Ikhasi behar dutuau,  
ahal badut, guziak.

Aitañi hasi zén khantuz  
« Mutchikoen » airian,  
Phiko guziak izartuz  
bi zankhoez lurrian.  
Haurra ari zen ontik  
jauzkan, erriz, utsian...  
Holako aitañi bat da  
maithagarri etchian !

PIERRE DIBARRARTEK eginik.

(Populiak esku zaparta ; irakurzaliak gur bat eta izkiribien emaitia Otchoari. Beste koblakari bat hullantzen da gur bat egiten du Otchoari eta irakurten.

4<sup>en</sup> Koblakariak

## ESKUAL HERRIA

---

Mundian bada lekhia  
Eskual-herria deithia,  
Itsas bazter, mendi aldian, chokho batian [jarria ;  
Han sorthurik, han nahi nuke higatu ene [bizia.

Itchuratik Uskalduna  
Gizon ginhari, lerdena ;  
Honez hon emanen du ahoan ezartera [doana,  
Hala hala azkarki lothuz... zalhe makhi- [laren gana.

Eskual-herriko etchiak  
Aitak nasaiki eginak,  
Bizkarra gora, sabel zabal, gibelerat he- [datiak ;  
Arkiña hongarri gizenez igerika korraliak.

Besteñiz haurrak non koka ?  
Ezi bada dozenaka :  
Bihi ederrik jiten zaio alhorretarik orgaka,  
Barrukian behi, aretche, zamari bohor, [saldoka.

Eskual-herriko etchian  
Bizia doa bakian ;  
Jinkoari othoitz eginez goizez eta arratsian,  
Aita eta amak zahartuz haur gisakoen  
[artian.

Meza bezperen ondotik  
Pelotari loth gogotik ;  
Ikhusgarriki joiten die besogañ ala phun-  
[petik,  
Herri guzia, han, so dago choraturik  
[bazterretik.

Eskual-herrian mendiak  
Aberats eta handiak ;  
Han gozoki gizentzen dira ahari eta ardiak,  
Ipharrari buruz alhatzen saldoan bohor,  
[idiak.

Eskualdun irrintzina  
Dejadar luze, samina,  
Aradaz arada, badoa zelhai mendietan  
[barna,  
Entzun ordutik, etsaiak ikharazten tian  
[arana.

Eskuara zer mintzajia !  
Nahasdurarik gabia.  
Diroie galtzera doala... amets erhc, haur  
[elhia !  
Amak erakutsiaz bethi orhituko da semia !

Eskual herri sakratia  
Gure aitez maithatia,  
Ene bihotza hiria duk, hiria ene bizia ;  
Mundu guzian, hi hiz hihau *Lurreko Pha-*  
[radusia !

OCHKACHEK eginik.

(Populiak esku zaparta. Irakurzaliak gur bat egiten du Otchoari eta emaiten dero izkiribia.

Koblakari khantari bat hullantzen da gur bat egiten du eta khantatzen « *Iruten ari nuzu* » khantiaren ahairian ihikistatzuz senhar-emazten botzak :)

## SENHAR-EMAZTIAK

---

Ene aizotegian bi senhar emazte  
Bakian bizi dira aharratu arte.  
Damurik algarrekin (*bis*) dira aharratzén ;  
Haien chuchen zaliak lan tcharra du har-  
[tzen.

Lehenik intziriak, gero phusakoka ;  
Gero berriz kitzika, azkenekoz joka ;  
Horra zer bizi molie (*bis*) dien eramaiten,  
Arauz gustu beñtie hortan edireiten.

Gizonari hon tzaio tzorta bat gorritik,  
Emaztiari aldiz iñhar bat hoillitik,  
Ematzia ichilka (*bis*) senharra ageriki  
Bakhotcha bere alde dabiltza abilki.

Ostatutik etchera, harro eta eder  
Senharra ez dadila sukhaltlat ager,  
Kasu egin behar du (*bis*) ber'emaztiari,  
Hoilli iñharrak eman imur gaistoari.

« Gizon etche galgarri, ardo edalia  
Ahalke behar huke hola bizitzia!  
Hizan bezalakoa (*bis*) ordia goizetik  
Joan hakit berhaña, begien bistatik. »

— « En'emazte gaichoa ez gitin aharra  
Hi bezalako baten badiñat beharra  
Andere baliosa (*bis*) eztia, ichila,  
Holako bakhotch batek balio tin mila! » —

— « Gizon auher, tzar, gormant, zikhin,  
[itchusia]  
Aspaldian nuk hitaz asetzen hasia,  
Bethi gerla gorria (*bis*) sekulan bakerik!  
Ifernú zolan baduk hi beno hoberik ! » —

— « Othoi, ago ichilik, ene ematzia !  
Hire hobetan laster emadan bakia !  
Nahi duna enekin (*bis*) gerla irabazi ?  
Lehen ere badakin nola haidan hezi ! » —

Emaztiak ordian hartzen du erhatza  
Etxe chiminiatik gizonak laratza  
Batak eman ahala (*bis*) bestiak : ai ! ai ! ai !  
Zoiñen eder bilhaiskan holako bi etsai !

Thipiña, bertz, gathulu, oro nahasteka  
Lurrian urthukirik dabiltza jauzika,  
Joan niz jaun andere (*bis*) haien baketzera  
Zehaturik hor naie igorrik etchera.

ZALDUBYK eginik.

(Khantariak emaiten du koblen  
izkiribia Otchoari, gur bat egiten deio-  
larik. Populiak esku zaparta.

Beste bi khantari, bata chamarrareki,  
bestia jaun gisa beztiturik, Otchoari  
lehenik gero batak bestiari, gur eginik,  
aldika alkarri buruz khantatzen dutie  
koblak.)

## HIRITARRA ETA LABORARIA

---

AHAIRIA : Maitia non zirade

**Hiritarrak**

Gaicho laboraria  
Hik duk zorthe tristia  
Hire bizi guzia  
Phenaz duk bethia (*bis*).

**Laborariak**

Jaun hiritarra zuri  
Hola zaiz'uduri  
Esker dit Jinkoari  
Zeren naian ezari  
Sortzez laborari (*bis*).

**Hiritarrak**

Hire eguna oso  
Lan arruntenentako  
Behar tuk eman oro  
Hotz den ala bero (*bis*).

**Laborariak**

Ezpanez'egin lanik  
Zer lizate honik ?  
Etziniro ogirik  
Ukhen ahal kitorik  
Ez et'erosirik (*bis*).

**Hiritarrak**

Hire arropa tcharrak,  
Zagoll'eta chamarrak  
Horik dutuk philtzarrak  
Suiala beharrak (*bis*).

**Laborariak**

Ene arropen gatik  
Eztit ahalkerik ;  
En'ardien ilhetik  
Et'alhorreko litik  
Etchen tit eginik (*bis*).

**Biritarrak**

Hir'eskola eskazak  
Eta molde gabiak  
Bethi hurruntzen deitzak.  
Ohore guziak (*bis*).

**Laborariak**

Enuzu ez ohore  
Ez eskola gose;  
Zeren gaiza hoik gabe  
Ihur izan beiteite  
Zuhur eta erne (*bis*).

ANTONI SAKOLAHUTSEK egunik.

(Bi khantariek gur bat Otchoari eta gero alkharri egin eta badoatza, laborariak Otchoari izkiribia eman ondoan. Populiak esku zaparta.

Beste khantari bat hullantzen da, Otchoari buruz gur egiten du eta gero khantatzen ozenki :)

## **LIBERTATIA**

*Guernikako arbola ahairian*

Uskaldun seme batek othe dia deusik  
Libertatia bezañ gaiza aberatsik ?  
Ez, ezta harentzat deus hañ baliosik ;  
Libro izatiaz baizik ezpeitu ametsik,  
Hura gabe eluke bizitze irusik (*bis*).

Munduko jauregirik den ederrenian,  
Ohore, jan-edan hon guzien artian.  
Uskalduna ez dauke, han, besteren pian ;  
Nahiago da izan, librotarzunian.  
Mendian berak egin etchola batian (*bis*).

(Otchoak esku zaparta bere lagunekin.)

Uskaldunak bakia du bethi galthatzen,  
Zeren libertatia gerlak dian khentzen ;  
Besteñiz deusek eztu nihun ikharazten ;  
Leho baten pare da etsaien buhurtzen,  
Azkarrenari ere etzaio zeditzen (*bis*).

(Berriz Otchoak eta lagunek esku zaparta.)

Hullan mila urthe du hanitch Erromano  
Gertakaz heltu ziren Uskal-herrilano,  
Holako armadarik aitek egundano  
Ez ikuhsirik ere, ziroien orano :  
« Nahiago gira hil, gu zeditu beno ! »

(Otchoarekin orok esku aparta.)

Libertate maitia, hire izenian,  
Gutuk oro bilduko, makhilak eskian,  
Oihu hau dugularik guziek ahoan :  
Bethi gauden Uskaldun bizian, hilian,  
Biba bethi Uskara gure sor-lekhian ! » (*bis*)

(Otchoa tchutitzen esku zapartaz eta arra hartzen du berset hori,  
tchutik khantatzen dialarik bere lagunekin eta populiareki.)

Gure Jinko Jaunari heben dut galthatzen,  
Zelutik lagun nezan Uskaldun egoiten.  
Ziek ere, gaztiak, zutiet othoitzen,  
Lagun gitzatzien Uskararen zañtzen ;  
Orok ikhas-azie Uskaraz mintzatzen ! (*bis*)

(Populiak Otchoarekin esku  
zaparta. Khantaria Otchoak besarkatzen  
du, haren ganik izkiribiaaren hartziareki.

Gero khantariak oro juntatzen dira,  
gur bat orok Otchoari egiten die eta  
khantatzen azken khantia :

*Bizi bedi bethi Uskara !*

Lehenik ororek batetan *arrapika*,  
gero botz batek bersetak.

#### OROREK

Uskaldunak ! Uskarari  
Izan bethi fidel oro !  
Bai Uskara bizi bedi,  
Bethi eder, bethi libro !  
Orok ikhasazie  
Uskaraz mintzatzen,  
Ohoriak deizie  
Mentekin manhatzen !

#### BATEK

Ait' et' amek maithatu legiak  
Izan bite bethi gur'argiak.  
Her jarraikiz gira moldatuko  
Uskaldun hon eta katoliko !

OROREK

Uskaldunak ! Aita-amari  
Izan bethi fidel oro !  
Hen legiak zoin hobeki  
Ditzagun begira oso !  
Orok ikhasazie  
Uskaraz mintzatzen,  
Orok ikhasazie  
Lege hen maithatzen !

BATEK

Ait' et' amek maithatu Jinkoa  
Berbera da bethierekoia.  
Ditzogula erran othoitziak,  
Amen ganik, Uskaraz, hartiak !

OROREK

Uskaldunak ! Jinkoari  
Izan bethi fidel oro !  
Jinkoaren eskiari  
Bermatzen den'ezta erho !  
Orok ikhasazie  
Uskaraz mintzatzen,  
Orok ikhasazie  
Uskaraz othoitzen !

BATEK

Ait' et' Amek maithatu Fedia  
Jinkoaz hañ ontsa bermatia,  
Barnez, kanpoz, atzo bezañ bihar,  
Hil artino dugun etchek azkar !

OROREK

Uskaldunak ! Fediari  
Izan bethi fidel oro !  
Hari esker chuchenari  
Bethi gira jarraikiko.  
Orok ikhasazie  
Uskaraz mintzatzen,  
Orok ikhasazie  
Fedetun izaten !

BATEK

Ait' et' Amek maithatu odola  
Eztu ihurk izitu sekula !  
Izan bedi, lehen bezañ gero,  
Bethi chahu, azkar eta bero !

OROREK

Uskaldunak ! odolari  
Izan bethi fidel oro !  
Sor lekhian, ezta guri  
Izatia besten peko !  
Orok ikhasazie  
Uskaraz mintzatzen,  
Orok ikhasazie  
Gaistoer buhurtzen !

BATEK

Ait' et' Amek maithatu herria  
Hobe dugu eziez urhia.  
Ez ahatz han hil diren zuhurrak,  
Han, guk ere, higa gur'ezurrak !

OROREK

Uskaldunak ! herriari  
Izan bethi fidel oro !  
Sor-lekhia zeliari  
Dugu, holaz, trukatuko !  
Orok ikhasazie  
Uskaraz mintzatzen,  
Orok ikhasazie  
Herrian egoiten !

BATEK

Ait' et' Amek maithatu Uskara  
Noku gabe heltu da gutara.  
Haren bethi mintzatzek'aitzina,  
Dugun orok egin orai zina !

OROREK

(Otchoak tchutitirik khantzen du bere lagunekin eta populiarekin ororek esku eskuña altchatuz :)

Uskaldunak ! Uskarari  
Etxekiko gira oro !  
Bai Uskara bizi be : i  
Bethi eder, bethi libro !  
Orok jakinen dugu  
Uskaraz m.n.zatzen,  
Oborak teiteiku  
Mentek n manhat.en !

OTCHOAK

Kobla eta khantu hoien entzutian  
Berotzen zeizkun bihotza et'odola ;  
Holako bertsetek, Uskaldun jentian,  
Bozten die hona, phizten ezachola.

Hañ ontsa mintzatzen direnen, eskerrak  
Gisago dirade, urhe phezak beno.  
Entzunen tuguno holako elhe ederrak,  
Ezdoa galtzerat Uskara orano.

Koblakari eta khantari guzien  
Badugu makhila urhezko bedera ;  
Eta haborokin, hirur hoberenen,  
Berek phartitzeko sei mila libera.

Primaketan pharte hartu duzienak,  
Garhait-sarien hartzera jin ziteie.  
Lehenik, idorbeitutzie zuntzurrak  
Zalgizeko ardoz bustiko tutzie.

(Otchoaren mithilek emaiten  
die ardo tzorta hon bat, pharteliant  
orori, godalet bederatan. Batere edan  
gabe pharteliantak oro herrokatzen dira  
Otchoaren aitzinian, eta ororek batetan,

godaletak altchatuz, erregiari buruz  
oihu egiten die eta zinkha, gisa huntan :

*Uskaldunen errege hon, Jaun Otchoaren  
osagarriari to-o-o-o-pa ! Iao ao-o o-o-o-hi-  
hi-hi-hi !*

(Tchorta bat edan, eta berriz, godaletak altchaturik, Otchoari buruz oihu egiten die eta zinkha, gisa huntara :

*Berriñ ere merechi be'tu to-o-o-pa !  
Iao-ao-o-o-o-o-hi-hi-hi-hi !*

Edan urhentu gabe, godaletak altchatuz beste gehiener buruz, azken aldikoz oihu eta zinkha egiten die :

*Gure Uskaldun gehien ororen osagar-  
riari to-o-o-pa ! Iao-an-o-o-o-o-hi-hi-hi-hi !*

Edaten ari direlarik, lasterka, eskalerrak gora, heltzen da Petrisantz, eta joaiten, erlio bat bezala, hatsalboturik, Otchoaren gana.)

## SCÈNA II

*Berrak, Petrisantz.*

PETRISANTZEK

Jaun Otchoa, ujan, egun hon zombaitez,  
Bertan beltzten dizu zelia arogaitzak ;  
Ene ganik berri guisto bat jakitez  
Goibeltu lehar dizu zure bihotzak !

Frankoak, Zaragozatik ohilturik,  
Iruñe hirian gerlaz sarthu tutzu ;  
Hiri hori erre diela jakinik,  
Zuri erraitera lehian jin nuzu.

(Edalek godaletak mahañian  
ezártent dutie eta beha egoiten dira har-  
riturik.)

### OTCHOAK

Zer diok ? Zer diok ? Eztuk ez egia,  
Behar ere orai erraiten diana !  
Heben erori bazeikun uhulgia,  
Etzukian latzago haren arana !

Ez, eztuk, ezteitek holakorik izan !  
Ez, eztiek Iruñe Frankoek erre ;  
Morroek haien armada Zaragozan  
Egun hoietan goithu badie ere.

### -- PETRISANTZEK

Nahi nuke hori egia ezpalitz !  
Nahi nuke, ni trompatu banundie !  
Lekhu segurretik jakin dit hitzez hitz ;  
Bai, Iruñe Frankoek erre dizie !

OTCHOAK

(Baratch-baratcha.)

**A**mets bat deia ? Buria galtzen duta ?  
**Ez, ez ;... bai, bai ;...** Argi nezazu Jinkoa !  
Egunko eguna zen Uskaldunen besta !  
Bihar...

(Phausu bat, eskia belarrian  
dialarik, gero bizi bizia, goratik :)  
... gerlako othe date biharkoa ?

Errak, Petrisantz, jakin duka Frankoek  
Norat hartu dien, Iruñetik landan ?  
Ordu bada, behar degu Uskaldunek,  
Damu handi hori phaka-erazi gerlan.

PETRISANTZEK

Jauna, Franko soldadoetan pharte bat  
Utzultzen tuzu gure herriak gainti ;  
Hanitch badutuzu, bena eztakit zombat  
Gure bortietan direnak ingoiti.

OTCHOAK

Zer ! Eitziko tugia igaraitera,  
Holako afruntia chahatu gabe ?  
Ez, ez ; goatzan, her gerla emaitera,  
Gerlan orok hil behar bagunu ere !

SCÉNA III

*Berrak, Otchoaren mithil bat, Ganelon.*

MITHILAK

(Banderarekin gur egiten deio  
Otchoari. Ganelon horra da haren  
ondotik.)

Ja:n Otchoa, Ganelon deitzen delako  
Franko bat, heltu duzu lehiatuki,  
Berri eli-baten zuri emaiteko.  
Jinkoa zurekin izan bedi bethi .

(Banderarekin gur bat egin  
eta mithila badoa berbera.)

GANELONEK

Ni nizala Bordeleko jaun kontia,  
Ganelon, Frankoen gehienetarik,  
Charlemañen arrebari ezkontia,  
Frankoen gehien handienetarik.

Igorten nila zien gana Jinkoak,  
Zien desohoria chahatu nahiz ;  
Iruñe errazi diala Charlemañak,  
Ni, horren erraitera zier, jin beniz.

OTCHOAK

(Ganeloni kasu egin gabe,  
populiari buruz :)

Eztugu dudarik arren ukhen behar !  
Uskaldun bandera urthukirik dugu !  
Orok arreraiki behar dugu bihar !  
Gure ohoriak gerla galthatzen du !

GANELONEK

Frankoen pharte bat, Charlemañareki,  
Igaranik dela zien bortietan ;  
Arrolan, hogei bat mila gizoneki,  
Bihar igaranen dela Ibañetan.

OTCHOAK

(Ganeloni haren gutiesteko  
mintzo bateki :)

Bena hik, Ganelon, erraguk, zertako  
Hire erregia hola traditzen duk ?  
Hik erran deizkunak gure honetako,  
Bena, hire, desohoragarri dutuk.

### GANELONEK

Ene bizitzia errisku handitan  
Izan dela Arrolanen obretarik ;  
Arrolanen hiltzez bihar Ibañetan,  
Izanen nizala, ni mendekaturik !

### OTCHOAK

Batak bestiari hiltze tcherkhatzia  
Etzutie handitzen Arrolan ez hi ;  
(Hullantzen delarik, Ganeloni  
begiala saginez :)  
Eta, aldiz, bere lagunen traditziak  
Gaztigu garratzak merechi tik bethi.

(Khentzen deitza eta hurrungo  
urthukitzan, lehenik ezpata, eta gero,  
koha eta kapa chingola duna ; erraiten  
deiolarik botz khechu bateki :)

Hartakotz, ezpatareki deitzat khentzen  
Koha eta kapa, aitzindari markak ;  
Uskaldunekin eztutuk ontsa heltzen  
Kaïn eta Judas uduri gizonak !

Esku eta zankhoak estekaturik,  
Eitziko haigu, hor, hire zorthiari.  
Behar huke izan lahardekaturik,  
Hañ duk hire krima, tzar et'izigarri !

(Bi gizonek estekatzen deitze  
Ganeloni zankhoak eta, bizkar zolan,  
eskiak.)

OTCHOAK

(Ezpata idokirik, zinez popu-  
liari buruz :)

Uskaldunak ! guk armak har ditzagula,  
Frankoak gure lurretan sarthu zaizku !  
Hogei mila dira, bagira bi mila ;  
~~Ez~~ beldur izan, partida bardin dugu !

(Oro badoatza treatetik Ot-  
choaren ondoan. Berbera baratzen da  
Ganelon etzanik.)

SCÈNA IV

*Ganelon berbera.*

GANELONEK

(Harriturik bezala :)

Zer entzuñ dut ? Zer ikhusten dut ? Zertan  
[ niz ?  
Kaïn eta Judas uduri nizala ?  
Arrolanen salhatzera, ni, jin beniz,  
Kaïn, Judas ; Ganelon hurak bezala !

Kaïnek *eho* Abel bere anaia,  
Nik *ere* anaie Frankoak hilerazten !  
Judasek saldu Jesus bere nausia.  
Nik *ene* errege Charlemaña traditzen !

Maradikatu dela eguna zointan  
Ganelon lur huntara beita agertu !  
Lurra zabal adi, hire erraietan,  
Behar dela, ni; gorde eta thapatu !

(Oihuz, heiagoraz hasten da,  
errabiatu bat bezala itzilikatzen delarik,  
bere buria lachatu nahiz. Phausu baten  
ondotik erraiten du :)

Sañhatu dudala, eta, saihatzian.  
Hañbeste tzarkeria eniala ikhusten;  
Bena, ondotik, zer harrak bihotzian !  
Bena, orai, ontsa ageri zer krima den !

Zer ? Ni bekhaitz eta salhater delakotz,  
Bihar hilen dela hogei mila gizon !  
Frantzia guzia dolian hortakotz !...  
Odol, nigar hoik, hire obratik Ganelon !

(Berriz orroa, plañu, itzulika.)

Ganelon ! Ganelon ! menteren mentetan,  
Ganelon izena oroz hugunturik,  
Kaïn eta Judas izenen khantian,  
Orotzaz datila maradikaturik !

Ez, ez, Jinko Jauna, othoi hel zakitzat !  
Nahi niz, ni joan Arrolanen gana !  
Ez enegatik, bena Arrolantzat,  
Othoi, ene estekak zuk **etheñaz**, Jauna !

(Phausu bat, gero itzulika, orroaz.)

Elas ! elas ! Kaïnek eta Judasek  
Etziela ukhen zure pharkamenturik !  
Besterik merechi dia Ganelonek ?...  
Bizi danik nizala ni damnaturik !...

(Berriz oihu eta itzulika ; nahi  
litake jeiki, bena ezin ; ordian, orroaz  
erraiten du bere indar oroz :)

Berere, Jinko Jauna, zure orzantzak  
Dian arana emozu oihu huni :

"(Heben ahal dian bezañ ozenki  
Ibañetari buruz :)

Arrolan ! Arrolan ! othoi, entzun nezak :  
Ehadila igaran Ibañetan gainti !

SCÈNA V

*Ganelon, Ainguria.*

(Ainguria sartzen da, Ganelo-  
nen azken hitzetan.)

AINGURIAK

(Khantatzez :)

Jinko Jaunak eztik entzuten  
Ganeloñ dohakabia,  
Bihotz gaistotik altchatzen den  
Bortchatuzko othoitzia.

Hire krima izigarriaaz  
Ehiz aski doluturik;  
Hik bihotza bekhaisteriaz  
Sobera duk eiharturik !

Ez deitzak Jinkoak ethenen  
Hir'esku hoiñen estekak,  
Zeren hik egin bekhatien  
Tinkago diren khatiak.


Bestalde, Frankoen zorthia  
Jinkoaren eskian duk ;  
Hautse beiti eman elhia,  
Gaztigien hullan dutuk.

Hik hire krima itchusia  
Ezezta ahal dezaian,  
Eramak bizitze guzia  
Othoitz'eta nigarretan.

(Ainguria badoa. Gane!onek  
oihu berriz egiten du, itzulika eta orroa  
zombaiten ondotik, erho batek bezala  
diolarik :)

Arrolan ! Arrolan ! othoi, entzun nezak,  
Ehadila igaran Ibañetan gainti !

*(Bigerren phartiaren urhentzia.)*



**HIRURGERREN PHARTIA**

---

**USKALDUNEN BITORIA**

**IBAÑETAKO GARATIAN**

---

**SCENA I**

*Aillande, Pette, Pellela, Erramun,  
soldadoak, Ganich.*

AILLANDEK

Frankoak eztira orano ageri,  
Auher egonez hen egurukitzia  
Luze dela etzaizieia uduri ?  
Deskantsa gitian nahi duzieia ?

Lau bagira heben, lauak aizinantak,  
*Muss* partida baten, chuchen, behar dena ;  
Zer hel ere, bethi sakolan tut kartak ;  
Lurra dukegu jargia eta mahaña.

(Idokitzen tu kartak sakolatik.)

Erramun eta ni ; Pette eta Pellela ;  
Jokuko sariak... gero phakatzeko,  
Soldadoak usu hutsik du sakola ;  
Sariak Frankoer dutugu hartuko.

ERRAMUNEK

Kartetan nik eztut sinheste handirik ;  
Hatik, zombait aldiz, ari niz *artthoan*,  
Florian ere bai ; hez beste jokurik  
Eztut egundano ikhasi kartetan.

AILLANDEK

Uskaldun hon batek behar likek bethi  
Jakin *mussa*, karten joku ederrena ;  
Diok eztakiala ; halere jar hadi ;  
Eginen diagu, biek ahal dena.

(Jarten dira lauak, harri tchin-tchola zombait bildu ondoan tantoentako. Aillandek kartak emaiteñ dutu. Ber demboran heltzen da Ganich Garaztar laborari bat, saiasik, biesak eta chamarra bizkarrian, makhila eskian. Hullantziareki eskeler zolala, oihuz edo khantuz, emaiten dutu bi berset, soldadoak kartakan ari direlarik.)

GANICHEK

— Oihu bat aditua izan da (1)  
Eskualdunen mendien artetik.  
Eta, Etcheko-jaunak, bere athearen aitzi-  
[nean chutik,  
Ideki du beharr'a, eta erran du : « Nor da  
[hor ? Zer nahi dautet ? »  
Eta chakurra, bere nausiaren oinetan lo  
[zagoena,  
Altchatu da eta karrasiz, Altabizkarrren  
[inguruak bethe ditu. —

— Ibañetaren lepoan harabotz bat ager-  
[tzen da,  
Urbiltzen da, arrokak ezker eta eskuin  
[jotzen duelarik ;  
Horri da urruntik heldu den armada baten  
[burruma ;  
Mendien kapetetarik guriek errepuesta  
[eman diote,  
Bere tuten seinua adiarazi dute,  
Eta Etcheko jaunak, bere dardak zorroztzen  
[tu ! —

(Azken hitz hoieki, heltzen da  
treatiala, eta joaiten da kartakarietara.)

(1) *Altabizkarreko* khanlu zaharretik dira bi-berset horik.

GANICHEK

Agur potikoak ! Zer ari zizte hor ?  
Zer, etsaia hurbil delarik kartetan ?  
Hortik ageri da zombat zizten lotsor...  
Ordu dut, jar nadin, zier so, phausian.

(Jarten da, tinkatu ondoan eskiak lauer.)

AILLANDEK

Ganichi.

To, hi hiza, Ganich ? Ontsa doi heltzen hiz ;  
Eni buruz, hōrfchē, berhala jar hadi,  
Erramunen gatik, lagun gabe beniz.  
Erramun bera aldiz goaitan jar bedi.

(Erramun badoa goaitatzera.  
Ganich jarten da haren ordari.)

GANICHEK

(Biesatik chahakoa khentzen dialarik.)

Edan behar diat tzorta bat lehenik,  
Ebili ondoan hon duk chahakoa,  
Eta, egun, bide badiat eginik,

(Edan aphur bat eta igaran  
erazten du chahakoa lauer.)

Zier ere eitzi dut doi tchestatzekoa.

(Bestek ere edaten die ; Aillandek lehenik edanik, karta unguru bat emaiten du. Bakhotchak bere kartak hartu eta sogen ondoan.)

Pettek : Muss.

Ganichek : Muss.

Pellelak : Muss.

Aillandek : Ezta mussik.

Pettek : Paso handia.

Ganichek : Paso.

Pellelak : Paso.

Aillandek : Bošt tantoz imbido.

Pellellak : Sei gehiago.

Aillandek : Hor dago !

Pottekek *Pellelari* : Zer tuk ? Zer tuk ?

Pellelak

(Buria hazkatuz) :

Errege, change.

Pettek *Pellelari* : Asto ziria ! Ehintzana ichil egoiten ahal ? — *Aillanderi* : Thira tzatzie hemeka tanto.

**Aillandek**

(Thiratzen du tanto bat, eta,  
bi hamarreko emaiten deitza Ganichi  
erranez :)

Totza ; hik hamarrekoak, nik tantcak.

**Aillandek** : Mintza tchipiari.

**Pettek** : Paso.

**Ganichek** : Paso.

**Pellelak** : Hirur tantoz imbido.

**Aillandek eta Ganichek** : Thira bat.

**Aillandek** : Mintza paretara.

**Pettek** : Ezta.

**Ganichek** : Bada.

**Pellelak** : Bada.

**Aillandek** : Ezta.

**Ganichek Pellelari** : Hamar tantoz imbido.

**Pellelak** : Eniz hon, thira tanto bat.

**Aillandek** : Mintza joku.

**Pettek** : Ezta.

**Ganichek** : Ezta.

**Pellelak** : Bada.

**Aillandek** : Bada.

**Pellelak** : *Aillanderi* : Hor dago.

**Aillandek** : Zer, ni jalkhi eta hor dago ? Hor diala *hogei eta hameka*.

**Pellelak** : Bai nik ere bai hortchek, eta eskiabeitut, partida gure.

**Pettek** : Biba gu.

**Pellellak**

(Erri bateki *Petteri*) :

Errak doidoia bezala : Biba gure *asto ziria*,  
eta ez biba gu, ezi *asto ziriak* dik irabazi.

(Kartak biltzen eta nahasten tu.)

### ERRAMUNEK

(Jiten delarik lasterka.)

Horra dira gure lau aitzindariak,  
Semen aitzinian, bestiak ondotik ;  
Kartaka utzirik, arhinik aztalak,  
Huts dezagun orok lekhia hebentik.

### GANICHEK

Ni hemen berian egon beharra naiz,  
Jakiteko norat hartu behar dudan ;  
Gaua heldu gabe ariko *gira*, araiz,  
Gu lauak oraino, gustuan, kartetan.

(Badoatza Ganichez bestiak.)

SCÈNA II

*Ganich, Semen.*

(Ganich jarririk egoiten da, jauntsten du chamarra eta abiatzen da chahakoaren hutstera, borogatu ondoan beharri khantian iharrausiz, orano ardo iñhar bat badela. Ordian Semen sartzen da.)

SEMENEK

Hon deiala, Ganich ! Sarriko hon dukek Bibotza eta odola bero ukheitia...  
Bena, dian moldetik uduri likek  
Orano berriki hizala heltia.

GANICHEK

Jauna bost orenez ebilia nuzu,  
Nahiz eta tenorez heldu gerlala ;  
Nun ezartzen nauzun orai erradazu,  
Han egin dezadan sarri ene ahala.

SEMENEK

Heben gehienak bilduko beikira,  
Egon hadi, hortche, bidia goaita zak ;  
Eta, noiz etsaiak heltuko beitira,  
Hen jitiaz guri pharte egin ezak.

(Ganich badoa. Otchoa, Garzia eta Eneko sartzen dira.)

SCÈNA III

*Otchoa, Garzia, Eneko, Semen.*

OTCHOAK

Gure ohoriaren eraikiteko,  
Eguna heltu da, adiskide honak ;  
Arren, Jaun Garzia, Semen eta Eneko,  
Prestik dutuzieia zien gizonak ?

GARZIAK

Jauna, Laphurtarrek, eskuiñeko aldetik,  
Bere dute Ibañetako bidea ;  
Arrolan iraganen denean hantik,  
Lagunekin duke, han, heriotzea.

ENEKOK

Bache-Nabartarrek aldiz, ezkerretik,  
Bidean lehertuko tuzte Frankoak ;  
Hen gainerat aurthikiz mendi kaskotik,  
Botchu muthur, zorrotz hala nola aiskorak.

SEMENEK

Bi saldotan, bidiaren bi buriak,  
Begiratzen titzie Ziberotarrek ;  
Españako aldian gorde tutzu batak,  
Beste aldia zerratzen dizie bestek.

OTCHOAK

Orai segur gira Frankoen goitziaz,  
Alde orotarik hatzemanik dira ;  
Gure gizonek, gorderik egoitiaz.  
Ukhen behar die orok arrankura.

Gomendia arauz, soldado guzier,  
Nik erran bezala, egin dukezie ;  
Min haboro eginen dugu Frankoer  
Haiduru girela asmatzen ezpadie.

GARZIAK

Ichil, ichila, dagotza Eskualdunak,  
Irrintzina bakhar bat aditu arte ;  
Hura aditu eta, chutiturik denak,  
Zombeit etsai buru lehertuko tuzte.

Nun ezdituzun, arrunt, bi irrintzina,  
Alkarren ondozka, berriz adiazten,  
Seinale emaiteko, egun, Eskualduna  
Gerlarik gabe dela etsaier nausitzen.

SEMENEK

Frankoer bidia, Espaňako aldetik,  
.Ziberotarrek zerratu bezañ sarri,

Zinkha bat entzunen beita hen artetik,  
Arrunt emanen gira oro gerlari.

Bortia gainti beste burialano,  
Zinkha hora arreginik izanen da ;  
Oren erdi bat igaran datekino  
Garhaiturik date Frankoen armada.

#### OTCHOAK

Ezkinen adelatzen ahal hobeki ;  
Orai jin bedi Arrolan gure ganai.  
Eztekie Frankoek hitza etcheki,  
Egun ikhus beze zer den Uskalduna !

Orai bortia ulhun eta ichil da,  
Zelia tempesta aitzinetik bezala ;  
Armen argitik jauz bedi chilimista,  
Ordian, ordian, herots eta gerla !

Mezulerrek echarri berrien arau,  
Eztira etsaiak hurrun izaten ahal ;  
Uskaldunentzat, handi date egun hau,  
Gisaz, gerla egun ezkenezake gal.

ENEKOK

Ez, ez dezakegu egun gal gerlarik,  
Soldadoak berak loriatzen dire,  
Ezen, bitoriaz ez dute dudarik,  
Anhitzez gutigo izanikan ere.

OTCHOAK

Beldurrik eztian tropa tchipi batek,  
Garhaitzen du tropa handi, lotsor dena ;  
Bozten niz ikhustez gure soldadoek  
Badiela gerlalako beharrena.

GANICHEK

(Oihuz bere goaitagiatik :)

— Heldu dira ! Heldu dira ! Zer lantzazko  
[sasia ! (1)  
Nola zer nahi kolorezko banderak heien  
[erdian agertzen diren !  
Zer zimistik atheratzen diren heien arme-  
[tarik !  
Zembat dira ? Haurrak konda tzak ongi : (1)  
Bat, biga, hirur, laur, bortz, sei, zazpi, zor-  
[tzi, bederatzi, hamart, hameka, hamabi.  
Hamahirur, hamalau, hamabortz, hamasei,  
[hamazazpi, hemezortzi, hemeretzi, hogoi !

(1) *Altzibizkarreko khantu zaharretik dira bi hersetak.*

(2) *Khantatzen du : Bat, biga, hirur, etc.*

Hogoi, eta millaka oraino ;  
Hen kondatzea demboraren galtzea liteke ;  
Urbilt ditzagun gure beso zailak, errotik  
[athera ditzagun arroka horiek.  
Botha ditzagun mendiaren patarrak behera,  
Heien buruen gaineraino ;  
Leher ditzagun, herioaz jo ditzagun !

SEMENEK

Ichil adi, Ganich, eta, harri puskak,  
Begotza phausian, tenoria artino.  
Entzutez sarriko zinkha eta karraskak,  
Ordian, ordian hiz, gerian ariko.

OTCHOAK

Zer azantza dugun hebentik entzuten !  
Beha ziteie, hau da herots handia !

(Bidiari so egiten du.)

Uduri luke, erauntsi gaitz bat jiten,  
Zitzerrez lehertzen denian odeja.

Hor dira ! hor dira, Lagun zombaiteki,  
Hor da Arrolan, aitzinia barturik.  
Jinkoa izan bedi orai gureki,  
Eta guk eztezagun ukhen beldurrik.

Ziek eta nik, aitzindari beikira  
Zor degu soldadoer etsemplu hona;  
Hartakoz, heben gerlakatuko gira,  
Heben beitateke gerla beroena.

#### SCÈNA IV

*Berrak, Arrolan, Turpin, Ollivier,  
Anselmo, Eggihard.*

(Uskaldun gehienak, Otchoa aitzinian, badoatza Frankoer buruz, eskia ezpataren lothgian dielarik.)

#### OTCHOAK

(Arrolani :)

Frankoen kapitāñ ohoragarria,  
Heben baratzen hai Uskaldun-kentiak ;  
Ziek egin duzien itchuskeria  
Chahatu behar dik, egun, hire odolak !

#### ARROLANEK

Jaun Otchoa, nik zuri dela etraiten,  
Charlemañaren oniotik goatzala ;  
Eztugula ogenik zier egiten,  
Joaitera utz gitzatzien berhala.

### OTCHOAK

Badukek, orai eztuzien ogenik,  
Hire lagunek ez hik, guri egiten ;  
Bena afruntu handi bat zien ganik  
Ukhen dugula, ezaigu ahatzten.

### ARROLANEK

Othoi klarkiago mintza zitiala,  
Zure errana eztela enthelegatzen ;  
Frantziaren ikhustia deitadala,  
Heben egoitiak, sobera berantzen !

### OTCHOAK

Ordu duk hortako ; eztuk behinere,  
Agian, ikhusiko hire Frantzia.  
Beste mundia hullanago duk hire,  
Heben, ahal, edirenен duk hiltzia.

### ARROLANEK

Zure khechia handi dela, Otchoa ;  
Errerik beita Iruñeko hiria,  
Hori dela khechiaren arrazoa :  
Hatik bertan jakin duzula berria !

OTCHOAK

Eta Iruñe ziek erre ondoan,  
Uste duka kito uzten zutiegula ?  
Erraiten deiat, botchu hunen ondoan  
Hik edo nik, egun hil behar dugula !

ARROLANEK

Charlemañak erreraziz hiri hora,  
Egin diala egin behar ziana ;  
Nik eztudala bátere arrankura,  
Horrez khechu den, ala ez, Uskalduna.

OTCHOAK

Nik aldiz erraiten deiat, ehizala  
Hire lagunekin heben igaraiten  
Nun eztuzien Uskaldunen odola,  
Azken tchortalano, egun jauzerazten.

ARROLANEK

Arren behar bada, gure ezpatekin,  
Bidia aitzina eginen dugula ;  
Enila nahi gerla Uskaldunekin,  
Bena haien beldurrik guk eztugula.

Ihurk ere, egundano, ezteikula  
Gure aitzinian bidia zerratu ;  
Ziek nahi ala ez, behar dugula  
Frantziako lurriala bertan heltu.

TURPINEK

Aurhiden artian eztela gerlarik,  
Ez aharrarik, behinere izan behar ;  
Eztela deus bakia beno hoberik ;  
Jinkoak zitzela bakian arra-ezar !

OTCHOAK

(Aphur bat ichil egonik.)

Orano ordu beita, arren entzun ezak,  
Ene ganik, bakezko azken elhia :  
Errenda ziteie, hi eta Frankoak ;  
Haita ezak bizia edo hiltzia.

Berantu gabe oihu bat izanen duk,  
Gerlaren hastiaren señalatzeko ;  
Bortiak Uskaldunez betherik dutuk,  
Eztuk Franko bat bizirik ezkapiko.

Prisoner jar hadi, hire lagunekin ;  
Gure eskietan ezartzie armak ;  
Eta, ziez tratu eginik gurekin,  
Arrerosiko zutie Charlemañak.

ARROLANEK

(Khechaturik :)

Hori dela, hori eskentze okherra !  
Arrolan sal eros baledi bezala ;  
Prisoner izan beno lehen hiltzera,  
Miliutan, ni ekharririk nizala !

OLLIVIERREK

Gu ere zurekin, bizian, hilian,  
Zer nahi hel dadin, bat bera girela ;  
Afruntu dela prisoner izatian,  
Hilen bagira ere, gerla hobe dela !

Bena etsaia hañ azkarra delakotz,  
Entzuneraaz dezazula deiadarra ;  
Hurren bada ere Charlemaña oraikotz,  
Haren-ganik jinen zaikula indarra.

### GARZIAK

Ahal zinukete behartzen laguntza  
Munduan diren populu orotarik ;  
Itsuski hautsi duzuelakotz hitza,  
Etzaizte jalgiko hemendik bizirik.

### TURPINEK

Gizon khiristiak, ez erran alkharri,  
Bata bestiaren hiltzeko elherik !  
Jinko Jauna ! galthatzen dudala zuri,  
Hoien artian eztadin phitz gerlarik !

### ENEKOK

Jainkoak ez detzazke onhets othoitzak,  
Batek bertzeak ezeztatzen tuztenak !  
Garhaitu nahi ditu orai Frankoak,  
Eta goretsi Eskualdunen zuzenak.

### ANSELMOK

Jinkoak Frankoer bere lagungoa,  
Bethi eta nun nahi, eman diala ;  
Gerlakatzen bagira ere, Jinkoa,  
Egun orano, gure althe dukegula !

SEMENEK

Bethi eta nun nahi... eztuk egia,  
Ezi, Saragozan gibeltu zidie ;  
Balinbazunien haren sustengia,  
Nolaz Morroek berek goithu zutie ?

ARROLANEK

Nun nahi izanik, soldado Frankoak,  
Gerlan, munduko azkarrenak direla :  
Hek kolpiak emaiten, eta Jinkoak  
Arrastakoak egiten dutiala.

OTCHOAK

Kasu emak, egun, Jinko handiari  
Eztezazien eitz sobera egitera ;  
Berak dakik, eztenez, Uskaldunari,  
Egun, jinen lagungoa emaitera.

ARROLANEK

(Bere ezpataren lothgia bere-  
katzen dialarik :)

Nik badudala ene ezpata hona ;  
Hunekin. etsaia, bethi, goithubeitut ;  
Hunekin, nik, hilen dela Uskalduna,  
Beste gisaz bidia libro ezpadut.

Hunekin, belharra motzten den bezala,  
Morroak tudala, nik, gerlan ebaki ;  
Hunekin, zaldunak motzten nutiala,  
Burutik, erdiz erdi, zaldiareki.

(Ezpata idokitzen du eta airian  
erabilten dialarik erraiten du :)

Durandal ! Durandal ! ezpata maitia !  
Eztela mundian hi bezañ azkarrik ;  
Izan dela hitaz bethi phuzkatia  
Khentu nahi hundina ene eskietarik !

Hik, Aita Saintiaz benedikaturik,  
Hitan dutiala zeluko indarrak ;  
Errelikaz beituk iguña betherik,  
Potsta ditzadala saintien ezurrak.

(Pot emaiten dero lothgian.)

### OTCHOAK

Besarkatzen ahal duk amoratsuki,  
Ezi besarkatzen duk azken aldikotz ;  
Gaia heltu gabe, hire laguneki,  
Hor hizate etzanik ezpata bezañ hotz !

ARROLANEK

Ziek ezpaduzie nahi gu eitzi  
Igaraitera bide huntan aitzina,  
**Gerlan** behar dugula ziekin hasi,  
Eta zien gañ datekila ogena.

Hiltziaren eztudala ez beldurrik  
Gehiago, egun, aitzinetik beno ;  
Hiltzen baniz, eztukedala afrunturik,  
Ene **ehailia** Uskaldun bat deno !

OTCHOAK

Bai, ezpatuk nahi gure eskietan  
Ezari armak eta libertatia,  
Nik erraiten deiat, egun, Ibañetan,  
Beharko zaiziela galdu bizia.

(Ezpata idokitzen du eta era-kusten deio hullantik Arrolani :)

Ontsa sogin ezok ene ezpatari,  
Uskaldunen khechiak zorrotzturik duk ;  
Ehiz ezkapiko horren kolpiari,  
Durandal horren althian deusere eztuk.

Ohore bat dukek, arma hunentako,  
Arrolani hiltziaren emaitia,  
Hire odolian beita chahatuko  
Ziek Uskalduner egin afruntia.

(Ezpata erabiliz Arrolani buruz :)

Zer! Charlemañak guri zina eginik  
Etzela sartuko Uskaldun lurretan,  
Izan da itchuski, ziez, hitza janik,  
Eta Iruñe ezaririk erhautsetan !

Iruñe, Iruñe, hau dugu eguna,  
Zointan behar behundugun mendekatu !  
Arrolan, orai duk hire azken orena  
Behar duk hiltzera, orai adelatu !

(Entzuten da hurruntik zinkha  
bat mendi batetik bestiala arra-eginik  
dena, han gorderik diren Uskaldunez.  
Arrolan eta haren lagunak ikhara batez  
harturik dira, eta harek eta Otchoak  
bezala, Uskaldunek eta Frankoek ezpa-  
tak idokitzen dutie. Arrolanek bere  
dei-adarrian, hirur aldiz tutatzen du,  
Frantziako aldiari buruz.)

OTCHOAK

(Arrolani :)

Entzun duk oihu plañu bat uduria  
Bortiak ikharan ezari tiana ?  
Markatu dik heltu dela tenoria,  
Zointan iratzartzten beita Uskalduna.

Bortu hoien erraiak lehertuko tuk,  
Arroka phuskatan, hire tropen gaña ;  
Gu aldiz, heben gerlakatuko gutuk,  
Nun beita errisku han duk kapitaña !

(Entzuten da harroka kasken  
herotsa kolpatien plañu 'eta heiagoreki.)

TURPINEK

Othoitzen zutiet, khiristi bezala,  
*Gure* artian eztadila izan gerlarik !  
Bihotzetan bakia sar dakigula !  
Armak eror dakitzela eskietarik !

ENEKOK

Ezda orai bakearen tenorea,  
Hurren, bakearen hitzak gure-ganik !  
Zaphatu duzue gure ohorea,  
Ikhusazue badugunez odolik !

### GARZIAK

Lege chuchenak hautserik direnean,  
Hen chuchentzea on zaio Jainkoari ;  
Bake etzinuten nahi, ordu zenean,  
Beraz, behar dugu orai gerlan ari !

### ARROLANEK

Bai, gerla behar dugula, gerlak berak  
Aharra hau chuchentzen ahal diala ;  
Turpin, utz tzatzu bakezko elhe ederrak.  
Eta Jinko justoak lagun gitzala !

### TURPINEK

Ene elher/buruz gor zidielakotz,  
Elas ! zombat gizon, egun, hilen diren !  
Bena joan gabe lurretik, bethikotz,  
Badela lan handi bat khiristiaren.

Ene ganik, Jinkoaren izenian,  
Bekhatiak pharkaturik ukheiteko,  
Bihotza ezaririk dolumenian,  
Berhala, jar ziteie oro belhariko !

(Gerlakariak, Uskaldunak alde  
batetik, Frankoak her buruz, oro belha-  
rikatzen dira eskuñeko belhañaz, eta  
eskiak bermatuz ezpaten lothgiari, bu-

riak aphalturik etchekitzentzutzen dutie, Turpinen elhen entzutiareki. Urhentzian oro zeñhatzen dira eta chutitzen, erran ondoan : *Halabiz*. Turpin aphezkupia bi herroken erdian da, tchutik, treate zolan, sargiari buruz, eta, ahal bezain errespetureki eta solanitatereki, erraiten dutu ondoko hitzak eskiak gerlakarien gaña hedaturik :)

#### TURPINEK

Pharkatzen deitziet zien bekhatiak,  
Jesusen merechimentien indarraz.  
Eta zitzela ene pharkamentiak,  
Hilen zidienak, zelian sar-eraz !

(Begiak eta eskiak zeliari buruz altchatzen dutu ; gero bi eskiak junta, belalarren eretzian, eta, arrunt, eiskerra bihotzaren gañen ezaririk, eskuñaz egiten du khurutchiaren zeñharia gizonen gaña, benedikatzeko bezala, erraiten dialarik :)

Aitaren eta Semiaren eta  
Ezpiritu Saintiaren izenian !

#### OROREK

Halabiz !

(Oro chutitzen dira).

TURPINEK

Jinkoaren ministroaren lekhia,  
Da, khiristi esprabatien khantian ;  
Haier zor du lagungoa emaitia,  
Hilen bada ere, bera, hen artian.

Eta gerlak jadanik kolpatu dutu  
Zombait khiristi gure lagunetarik ;  
Banoa hen gana, Jinkoakbeitutu  
Hurak ere oro bere haurretarik !

(Badoa, gerlakariek ororek  
gur bat egiten derelarik.)

SCÈNA V

Gehien Uskaldunak eta Frankoak.

*Otchoa eta Arrolan*  
*Garzia eta Ollivier*  
*Eneko eta Anselmo*  
*Semen eta Eggihard*

} alkharri buruz.

(Turpin joan ibezan sarri,  
musika ari delarik, batallan aritzen dira  
bi partidak, bena bizpahirur aldia ahal  
oroz borthizki aririk, gainti batak ezin  
goithu du bestia.)

### OTCHOAK

(Arrolan mehatchatzen dialarik  
bere ezpatareki, batallaren ondotik.)

Arrolan. ontsa etchekitzen ahal duk  
Durandal hire ezpata aiphatia ;  
Ene bihotz Uskalduna zaurthu beituk,  
Ene besoa duk indarrez bethia !

(Bere lekhialat arra-utzultzen  
da eta beste gerlakariek beren koblak  
emaiten dūtie, bakhotchak bere etsaia  
desafiatuz Otchoak Arrolan egin dian  
bezala.)

### ARROLANEK

(Otchoari.)

Otchoa, eztiala lehen aldikotz  
Durandal tinkatzen ene esku eskuñak ;  
Ene ezpata eta ni eñhe ordukotz  
Odolez hutsturen dutuk hire zañak !

### GARZIAK

(Olivierri.)

Ehadila ikhara, nere aintzinean,  
Ollivier, Arrolanen adiskidea,  
Bihotza zilatuko deadanean,  
Chuchen eman ahal dezadan kolpea !

OLLIVIERREK

(Garziari).

Hi bezalako etsai bati, Garzia,  
Egun beno lehen, buhurtu nizala,  
Eta, orai artino, orori hiltzia,  
Ezpata huneki, nik, eman dudala !

ENEKOK

(Anselmori :)

Anselmo, noiz eta, ere baitukek aski,  
Erran ezak, gerla akaba dezagun ;  
Nahi haut, merechi tian ohoreki,  
Hi, bertze mundurat, nik igorri, egun !

ANSELMOK

(Enekori :)

Ez egin hañbeste espanto, Eneko ;  
Hik aski badukela, nik beno lehen.  
Gehien Franko bat goithurik ezteno,  
Hanitch etsai dutila berak egoisten !

SEMENEK

(Eggihardi :)

Gose hisa, Eggihard ? Ene ezpata,  
Arrañ gisa, emaiten deiat jateko ;  
Eta, hire odoletik zombait tzorta,  
Egarri bahiz, batukek edateko.

EGGIHARDEK

(Semeni :)

Goserik ez egarririk, nik eztela,  
Bitoriaaren irabazteko baizik ;  
Bena, ene ezpata egarri dudala.  
Semenen bihotzian den odoletik !

(Berriz ere batalla, bena orano  
auherretan.)

OTCHOAK

(Bere laguner :)

Hats hartze aldi huntan, Uskaldun Jaunak,  
Etsaien goitzeko, indar har dezagun !  
Ez, ahatz, Frankoek zaphatu zuzenak !  
Hurak arreraiki behar tugu, egun !

(Kampotik herotsak handiago dira.

Entzun ezazie, zer herots handia  
Horra den Ibañeta mendi guzitik !  
Frankoen khorpitzez paillat da bidia,  
Ez ditzagun utz, hen gehienak, tchutik !

ARROLANEK

(Bere laguner :)

Ollivier maitia, Anselmo, Eggihard,  
Ez kasurik egin Otchoaren elher.  
Ez beldur, Frantzian girateke bihar !  
Biba Frantzia, eta hiltze Uskalduner !

(Gehien Frankoek batetan :  
*Biba Frantzia, eta hiltze Uskalduner !*)

ARROLANEK

(Otchoari :)

Orai hik, Otchoa, hire espantoekin,  
Bizia heben galdu behar diala ;  
Hortche etzanik, hire hirur lagunekin,  
Hire armadak edirenен haiala !

OTCHOAK

(Bizi bizia Garziari :)

Bahiza, Garzia ?

GARZIAK

Bai baniagozu !

OTCHOAK

(Enekori :)

Bahiza, Eneko ?

ENEKOK

Jauzteko prest Jauna !

OTCHOAK

(Semeni.)

Hi, bahiza, Semen ?

SEMENEK

Ni bethi prest nuzu !

OTCHOAK

Arren, biba Iruñe ! Eta gu aitzina !

(Jauzten dira lauak Frankoer buruz oihu eginez : *Biba Iruñe !* Lehenik Frankoek gañia hartzen die, bena Arrorolan Otchoaz hunkirik, erorten da, eta, haren ondotik bestiak ere, bertan erorten dira.)

OTCHOAK

(Batallaren urhentzian :)

Bitoria dugu ! Biba Uskaldunak !

Biba Laphurdi ! Biba Bache-Nabarre !

Biba Zibero ! Biba gure zuzenak !

Uskaldun guzier milatan ohore !

### ARROLANEK

(Chutitzera iseiatzen delarik  
besañkoaren gaña, botz flakatu bateki  
erraiten du plañuz bezala, baratch ba-  
ratcha :)

Jinko Jauna!... Pharka ene bekhatiak!...  
Adio... Frantzia!... Adio... Charlemaña!...  
Adio... ene emazte eta haur maitiak!...  
Zier doluz hil da... Arrolan kapitaña!...

Adio... Durandal!... Hir e besarkatzez,...  
Besarkatzen tiat... maite nutianak!...  
Hitan errelifik... dutien saintiez.,.  
Ukhen beza... zelia... ene arimak!...

(Arra-etzaten da, Durandal  
besarkatzen du, eta besoak haren gañe-  
tik khurutchaturik hiltzen da.)

(Uskaldun gehienek, etsaien  
khorpitzak errespeturekin zeñhatzen  
dutie, eta, eramaiten treatetik kampo,  
kulizen aldialat, Eggihard lehenik, gero  
Anselmo, gero Ollivier, Arrolan azkenik,  
ezpatak treatian eizten dutielarik. Arte  
hortan Ganichek oihuz emaiten dutu bi  
kobla bere lekhutik :)

GANICHEK (1)

(Bere lekhutik :)

— Zer nahi zuten gure mendietarik, Nor-  
[teko gizon horiek ?  
Zertako jin dira, gure bakearen nahastera ?  
Jaungoikoak, mendiak in dituenak, nahi  
[izan du, hek, gizonek ez pasatzea ;  
Bainan, arrokak birribilkatika erortzen  
[dira, tropak lehertzen dituzte.  
Odola, churrutan badoa, haragi puskak,  
[dardarak daude !  
Oh ! Zembat hezur karraskatuak ! Zer  
- - - [odolezko itsasoa !

— Eskapa ! Eskapa ! indar eta zaldi dituzue-  
[nak !  
Eskapa hadi, Karlomano errege, hire luma  
[beltzegin, hire kapa gorriarekin ;  
Hire ilhoa maitea, Arrolan zangarra, han  
[hila dago ;  
Bere zangartasuna beretako ez du izan !  
Eta orai, Eskualdunak, utz ditzagun arroka  
[horiak ;  
Jauts giten zalhe, igor ditzagun gure dar-  
[dak, eskapatzen direnen kontra.

— Badoadi ! Badoadi ! Non da bada lan-  
[tzazko sasi hura ?  
Non dira, heien erdian ageri ziren, zer  
[nahi kolorezko, bandera hek ?

---

(1) Kobla horik *Altabizkarreko* khantu zaharretik dira.

Ez da gehiago zimistarik atheratzen, heien  
[arma, odolez bethetarik!...]

OTCHOAK

(Durandal eskian.)

Nigar egin ahal baleza atcheiriak,  
Hiri lukek egitia, orai, Durandal,  
Ezi, hik egun egin dian galtziak,  
Bere parerik eztik ukheiten ahal!

Hire nausiari ohore egiteko,  
Ehait utziren ihuren eskietan.  
Jinko Jauna bera dukek nausitako,  
Eta ezariko hait haren altharetan.

(Pot emaiten dero iguñian.)

SCÉNA VI

*Berrak, soldado Uskaldunak.*

(Soldadoak, bandera aitzinian  
orano sarthu gabe :)

GANICHEK

(Bere lekhutik :)

Zombat mila ziren ?

SOLDADOEK

(Treatian sarthu gabe khantatzēn die :)

Bat, biga, hirur, laur, bost, sei, zazpi, zortzi,  
Bederatzu, hamar, hameka, hamabi ;  
Hamahirur, hamalaur, hamabost, hamasei,  
Hamazazpi, hamazortzi, hemeretzu, ho-  
[gei (*bis*).

GANICHEK

Orai zombat dira ?

SOLDADOEK

(Khantatuz treatian sartziareki :)

Hogei, hemeretzu, hamazortzi, hamazazpi,  
Hamasei, hamabost, hamalaur, hamahirur,  
Hamabi, hameka, hamar, bederatzi,  
Zortzi, zazpi, sei, bost, laur, hirur, biga,  
[bat (*bis*).

(Ber demboran treatiaren ungu-  
ria egiten die eta gero herrokatzen dira  
Otchoari buruz ; bandera-zañak, bi gizo-  
nen artian, haieki egiten du lehen her-  
roka.)

GANICHEK (1)

(Bere lekhutik :)

— Bat ?... Ez da bihirik agertzen gehiago.  
Akabo da ! Etcheko-Jauna, joaiten ahal  
[zira, zure chakurrarekin,  
Zure emaztearen eta zure haurren besar-  
[katzera ;  
Zure darden garbitzera eta altchatzera  
[zure tutekin, eta gero heien gainean  
[etzatera eta lo itera !  
Gabaz, arranoak joanen dira haragi puska  
[lehertu horien jatera,  
Eta hezur horiek oro churituko dira eter-  
[nitatean !

SOLDADO *Laphurtar batek*

(Otchoari :)

Jauna, heldu naiz, zuri pharte egitera,  
Laphurtarrek gerla egin duten moldeaz ;  
Manhatu gintuzun Frankoen hiltzera,  
Hil-herri bat egin dugu hen bideaz !

SOLDADO *Garaztar batek*

(Otchoari :)

Garaztarrak nola ari izan diren gerlan,  
Jauna, heldu naiz erraitera, ni ere :

---

(1) *Attabizkarreko khantu zaharretik da berset hori.*

Guk aurthiki tugun harroken azpian,  
Hastetik, Frankoak hilik izan dire !

SOLDADO *Ziberotar batek*

(Otchoari :)

Ziberotarrek, Frankoak, makhileki,  
Baratu tizie gibel utzultzetik ;  
Orai horra tuzu, boztarioreki,  
Dantzatuz Frankoen khorpitzen gañetik.

— PETRISANTZEK

Erauntsi gaisto baten pian ogia  
Chehekaturik etzaten den bezala,  
Gure kolpien pian, Franko-kentia,  
Etzan duzu, chehekaturik berhala.

OTCHOAK

Uskaldunak ! Esker deiziet orori  
Uskal-Herri guziaren izenian !  
Gure bandera beitzen atzo erori,  
Ezari duzie heñik gorenian !

(Lehenik Otchoa eta arrunt bes-  
tiak ere burhasten dira.)

OTCHOAK

(Banderari buruz :)

Bandera maitia, hik deizkuk Jinkoa  
Eta gure zuzenak orhiterazten !  
Hire ikhustiak bozten dik gogoa,  
Eta sor lekhia zinez maitherazten !

(Ezarten du koha burian, bestek  
ere hala hala egiten die.)

Morroek Jinkoa eta Uskara khentuz,  
Gei guntien eho edo paganotu ;  
Frankoez, hen goizen Jinkoak laguntuz,  
Uskaldun, Fededun, girade baratu !

Adiskidantzazko legia hautserik,  
Frankoek Iruñen gerla eman deikie ;  
Ibañetan, algargana juntaturik,  
Uskaldunek Frankoak goithu tuzie !

Gure Uskara edo Uskaldun zuzenak  
Ihurk ere nahi badeikie khentu,  
Nor nahi izan dadin, buhurt, Uskaldunak,  
Bost mila urthe gure althe badutugu !

Gure ondokoer utz dezagun legetako :  
« Burhagertu behar da bethi Uskaldun ! »  
Eta orai algarganik phartitzeko,  
Gure libertatia khanta dezagun !

### SCENA VII

Berrak, Ainguria.

#### AINGURIAK

(Otchoaren azken hitzetan sarturik, khantatzen du :)

Zien libertate zaharra,  
Egun khanta beno lehen,  
Frankoekilanko aharra  
Ahatz ezazie heben.

Jinkoak eztu khiristien  
Arteko gerlarik nahi ;  
Nahigo luke populien  
Artian bakia bethi !

Bena populiek chuchena  
Behin utzi dienian,  
Goiz edo berant hen ogena  
Chahatzen du odolian.

Morroen krudelititia  
Frankoek goithu badie,  
Berek hitzemanen hautstia  
Khario phakatu die !

Heben-harat, bat egizie  
Franko populiareki ;  
Jinkoa zerbutchazazie,  
Bi populiek, leialki !

Orai, zien libertatia  
Khanta zazie goraki ;  
Bethi zien begiraria  
Jinko Jauna izan bedi !

## LIBERTATIAREN KHANTIA

---

### BOTZ BATEK

Uskaldun seme batek othe dia deusik  
Libertatia bezañ gaiza aberatsik ?  
Ez, ezta harentzat, deus, hañ baliosik ;  
Libro izatiaz baizik, ezpeitu ametsik,  
Hura gabe eluke bizitze irusik ! (*bis*)

OROREK

Hura gabe eluke bizitze irusik ! (*bis*)

BATEK

Munduko jauregirik ederrenian,  
Ohore jan-edan hon guzien artian,  
Uskalduna ez dauke, han, besteren pian ;  
Nahiago da izan, librotarzunian,  
Mendian berak egin etchola batian ! (*bis*)

OROREK

Mendian berak egin etchola batian ! (*bis*)

BATEK

Uskaldunak bakia du bethi galthatzen,  
Zeren libertatia gerlak dian khentzen ;  
Besteñiz, deusek eztu, nihun ikharazten,  
Lehon baten pare, da, etsaier buhurtzen,  
Azkarrenari ere etzaio zeditzen ! (*bis*)

OROREK

Azkarrenari ere etzaio zeditzen ! (*bis*)

BATEK

Orai, mila urthe du, hanitch Errromano  
Gerlakaz heltu ziren, Uskal-herrilano,  
Holako armadarik, aitek egundano,  
Ez ikuhsirik ere, ziroien orano :  
« Nahiago gira hil, gu, zeditu beno ! (bis)

OROREK

Nahiago gira hil, gu, zeditu beno ! (bis)

BATEK

Gure Jinko Jaunari, heben dut galthatzen,  
Zelutik lagunt nezan, Uskaldun egoiten ;  
Ziek ere gaztiak, zutiet ohoitzen,  
Lagunt nezazien Uskararen zañtzen !  
Orok ikhasazie Uskaraz mintzatzen ! (bis)

OROREK

Orok ikhasazie Uskaraz mintzatzen ! (bis)

BATEK

Libertate maitia, hire izenian,  
Oro gutuk bilduko, eskiak eskian,  
Oihu hau dugularik, guziek, ahoan :  
Gauden bethi Uskaldun, bizian, hilian !  
Biba bethi Uskara, gure sor-lekhian ! (bis)

OROREK

Biba bethi Uskara, gure sor lekhian ! (*bis*)

BATEK

Ene bersetak huntan dutut urhentuko :  
Biba libertatia ! Uskaldunentako !  
Jinkoa othoitzetik, eniz baratuko,  
Bakezko bizitzia deiot galthatuko,  
Eta gero zelia eternitateko ! (*bis*)

—  
OROREK

Guri libertatia bizitze hountako,  
Eta gero zelia eternitateko !

URHENTZIA

## PELLO IKHAZKINA<sup>(1)</sup>

---

Jende beharrak ziren  
Pello ikhazkina,  
Eta haren emazte  
Kochepa-Martina ;  
Beren etchola zuten  
phezoinez egina,  
Eta janari hotza  
talo-ta-tchardina.

Neguko arrats batez,  
senhar emazteak  
Nakhaizturik zaduzkan  
chardina jateak :  
« Gu bethi miserian,  
« asean bertzeak ;  
« Makhur dire, zioten,  
« holako legeak. »

---

(1) Heben emaiten tugu p. 73<sup>ian</sup> aiphatu  
koblak, agertu diren bezala kasetetan edo  
librietañ zointarik ziberotarrialat utzuli  
beitutugu.

Sorgin bat'sartzen zaie  
leihotik barnera :  
« Heldu naiz hiru gauzen  
« zuei emaitera.  
« Galda zatzue hiru,  
« berech bat bedera,  
« Nahi den bezen handi ;  
« Deus ez zait sobera. »

Pello oihuz hasten da  
supazter zokotik :  
« Ai ! nik tripot bat banu,  
« jan niro gogotik. »  
Tripot bat erortzen da  
pamp, chiminiatik,  
Jan on bat egin dezan  
Pellok oraikotik.

Martinak senharrari :  
« Zer Pelloa haizen !  
« Ez hakiena zerbeit  
« hoberik galdatzen ?  
« Balinba ! tripot hori,  
« dena den, hoin gizen,  
« Sudurretik dilindan  
« balitzaik gelditzen. »

Martinak hitz horiek  
erasi orduko,  
Tripota sudurrera  
Pellori doako.  
Khendu nahiz tiraka,  
« debru'ta karako ! »  
Sudurrarekin beizik  
ez du aterako.

Igande eguna zen  
biharamuuean.  
Oro irriz zagozkon,  
herrira heltzean.  
« Pello, zer mila debruk  
« jo hau sudurrean ? »  
— Pellok : « Utz nezazue,  
othoi, ni bakean. »

Haur guziak ondotik,  
chakhurrak saingaka ;  
Lau zehe sudur hoitaz  
nola ez əhalka !...  
Etchera doa, ustez  
andrea balaka.  
Ez diro ichil-araz  
han haren kalaka.

Azkenekotz Pellori  
burura zaio jin,  
Hirugarren galderik  
ez dutela egin.  
Sudur soberakin hoi  
dio suntsi dadin.  
Tripota suntsitzen da ;  
orai du atsegina.

Alegia hortarik  
zer dagerin, huna :  
Askōren gutizien  
funtsgabetasuna.  
Bil ez badezakegu  
handi den fortuna,  
Dugun goza bederen  
gutien duguna.

ZAL IBY.

---

## KHUIA ETA EZKURRA

---

Haitz baten itzalean,  
ontsa jan edana,  
Perttoli jaun sabanta  
zagoen etzana.

« Haitzak ezkurra eta  
khuia nun emana ? »  
Ez zitzaion chuchen  
Jainkoaren lana.

Ni izan banintz Jainko,  
zion bere baithan,  
Khuia emanen nian  
haitz adar hoietan !  
Ezkur pikor hoi aldiz  
gisago zukekan  
Khuiaren orde hortche,  
lurrean herrestan.

Perttoli jakintsuna  
hortan lokhartu zen,  
Kopetara hor zaio  
ezkur bat erortzen.  
« Atch ! dio, zerk nau hola  
iatzararazten ?  
Khuia balitz erori  
aise hila nintzen ! »

Jainkoak egin gauzak  
chuchen dira denak,  
Handienak bezala,  
orobat mendrenak.

Mundu huntan Jainkorik  
nahi ez dutenak,  
Guzien makhurtzeko  
hek dire lehenak.

ZALDUBY.

---

**AITASO BATEN SOLHASAK BERE ILOBA CHUMEARI**

---

Ikhusten dugu gizon bat  
aitasotu denean,  
Etch'aitzinean yarririk  
alkhi baten gainean ;  
Bere haurrak ezarririk  
bizi molde onean,  
Ilobaso chume bati  
dagona solhasean.

Ez da mendi muthurrean  
elhutra churiago,  
Aitasok buru gainean  
bilhua duen baino ;  
Bainañ bozki eta chuchen  
mintzo baita oraino,  
Atseginez entzutera  
ilobasoa dago !

Aitasok erraiten dio :  
zuk ene haur maitea,  
Ikhasia duzu ongi  
Jainkoaren legea ;  
Nahi dauzut erakutsi  
lurreko bizitza  
Nola izan dezakezun  
zorionez bethea.

Egun guziz artharekin  
othoitz azu Jainkua,  
Eta atchik ait'amen tzat  
aphaltasun osua :  
Orhoit zaite badutela  
manatzeko eskua :  
Hura khenduz urrun dago  
bitez bakezkua !

Arth'izarra agertzean,  
Jaiki zaite ohetik.  
Zeren ez baitu egunak  
oren ederragorik ;  
Bas'oilarrak orduan du  
kantatzen oihanetik,  
Bai'ta burua chorriak  
azaltzen hegal petik.

Ihizi hek ernatzean  
eman zaite lanean,  
Lana baita errechago  
goizik hasten denean :  
Bozkariotuko zire  
iguzki'agertzean,  
Phentze-lilien usaina  
zureganat heltzean.

Mahainean lagunekin  
zaudenęan yarria,  
Izan zaite alegera  
eta maithagarria ;  
Lotsaz dagon beharrari  
eginaraz irria,  
Sor dakion bihotzean  
bozkaria derria.

Eskuarazko mintzatzea  
atchik'azu mihian,  
Ez baita ederragorik  
zeruren azpian ;  
Nola arrano-zaharra  
pinpirinen artian,  
Halaber dago Eskuara  
hauzokoen erdian.

Eskualdun andretan dira  
baliosena<sup>k</sup> bethi :  
Erlea be ain langile,  
Bildotsa bezain ezti.  
Iragaiten zarenean  
hogoi urthetan goiti,  
Beha zozu hurbil danik  
halako den batia.

Azken urthea ez badu  
aurthen ene biziak,  
Erakhutsiko dauzkitzut  
Eskual dantza-yauziak,  
Nik, aitasotua gatik,  
ez ditut ahantziak.  
Ikhasi behar ditu'u,  
ahal badut, guziak.

Aitaso hasi zen kantuz  
muchikoen airean,  
Piko guziak izartuz  
bi zangoez lurrean ;  
Eta ez dute etsitu  
ongi ikhas artean.  
Halako aitasoa da  
maithagarri etchean !

PIERRE DIBARRART.

## ESKUAL HERRIA

---

Frantzian bāda tokia

Deithua Eskual-herria

Itsas bazter, mendi aldean, chokho batean  
[jarria ;

Han sortua, han nahi nuke higatu nere  
[bi. ia.

Itchuratik Eskualduna

Gizon ginhārri lerdena ;

Hunez hun emanen derautzu ahorat dera-  
[man jana ;

Hala hala biphilki lotuz, zalu makilaren  
[gana.

Eskual-herri! o etcheak

Aitak nasai obratuak ;

Bizkarra gora, sabel zabal, gibelerat hed-  
[tuak,

Arkiña ungarri gizenez igerika korraleak.

Bertzenaz haurrak nun koka?

Ezen badu dotzenaka.

Bihi ederrik jiten zaio alhorretarik orgaka;  
Barrukian behi, ahatche, behorra eta be-

[hoka.

Eskual-herriko etchean  
Bizia doha bakean ;  
Jinkoai othoitz eginez goizez eta arra-  
[tsean,  
Aita eta amak zahartuz haur gisakoen ar-  
[tean.

Meza bezperen ondotik  
Pilotari lot gogotik ;  
Ikhusgarriki joiten dute besogain ala pun-  
[petik ;  
Herrieguzia beha dago choratua bazterretik.

Eskual-herrian mendiak  
Aberats eta garbiak ;  
Han gozoki gizentzen dire zikhiro eta ar-  
[diak,  
Ipharrari buruz alhatzen multzoka behor  
[idiak.

Eskualdunen irrintzina  
Deiadar luze, samina,  
Aradaz arada, badoa zelhai mendietan  
[barna.....  
Entzun ordutik ichildu zen *Orrian Arro-*  
[*lanena !*

Eskuara zer mintzairea!  
Nahasdurarik gabea ;  
Diote galtzerat dohala... amets zoro, haur  
[elhea !  
Amak erakutsiaz, bethi orhoituko da umea!

Eskual-herri sakratua  
Jakintsunek aiphatua,  
Ene bihotza hirea duk, hirea adimendua ;  
Mundu guzian haiz bakarrik *Lurreko Pa-*  
--- [rabisua !

OCHKACH.

## SENHAR-EMAZTEAK

---

Ene auotegian bi senhar emazte,  
Bakean bizi dira hasarratu arte,  
Goardi elgarrekin (*bis*) behin samurtzetik,  
Heien chuchenzaileak lan ona betar dik !

Lehenik intzirinak, gero deihadarka,  
Gero berriz eskainka, azkenekotz joka.  
Horra zer bizi modu (*bis*) duten maiz se-  
[gitzen,  
Dudarik gabe gostu diote kausitzen.

Gizonari on zaio zorta bat gorritik,  
Emazteari berriz ttotta bat horitik,  
Emaztea ichilka (*bis*) senharra haltoki.  
Bakhotcha bere alde dabiltza abilki.

Ostatutik lekora, bapo eta eder,  
Senharra ez dadila sukhalderat ager !  
Goardia eman bezo (*bis*) bere andreari,  
Ttottaren ondorio omore tcharrari.

« — Gizon etche salgarri, arno edalea,  
Ahalke behar huke hola bizitzea !  
Haizen bezalakoa (*bis*) arraila goizetik !  
Ohakit, higuintzarra begien b' chtatik ! — »

« — Nere andre gaichoa, ez bada hasarra !  
Hi bezalako baten badiñat beharra ;  
Emazte baliosa (*bis*), eztia, ichila,  
Holako bakhar batek balio tin mila ! — »

« — Gizon alfer-tzar, gormant, zikin, itsu-  
[sia,  
Aspaldian nauk hitaz asetzen hasia ;  
Bethi gerla gorria (*bis*) sekulan bakerik !  
Ifernuan bide duk hi baino hoberik ! — »

“ — Othoi, ago ichilik, ene emaztea !  
Indan-bai, laster gero, bi arten bakea !  
Zer nahi dun enekin (*bis*) gerla irabazi ?  
Lehen ere badakin nola hautan hezi ! — »

Emazteak orduan hartzen du erkhatza,  
Eta chiminiatik gizonak laratza,  
Batek uma ahala (*bis*) bertzeak : ai ! ai ! ai !  
Oi zoin eder gduan holako bi etsai !

Eltze, zartain, gathelu, oro nahasteka,  
Lurrerat arthikiak dabilta jauzteka.....  
Goaten naiz jaun andre (*bis*) heien ba-  
[khetzera.....  
Umaturik hor naute igorri etchera !

ZALDUBY.

## LIBERTATEEN AMODIOA

---

Eskualdun garbi batek othe dauka deusik  
Libertatea bezain gauza aberatsik ?  
Ez, ez harentzat ez, deus hain baliosik  
Zorion hortaz baizik ez baitu ametsik,  
Hori gabe ez duke bizitze urusik ! (*bis*)

Munduko gaztelurik den ederrenea  
Latsengu, jan edan on guzien artean,  
Eskualduna ez dauke han bertzen menean  
Nahiago du izan librotasunean ;  
Mendian berak egin etchola batean (*bis*).

Eskualdunak bakea du bethi galdatzen,  
Zeren libertatea gerlak dion khentzen ;  
Bertzenaz deusek ez du nehon ikharatzen ;  
Lehoin batei pare du etsaier oldartzen,  
Buruzagiek dute hortakoz maithatzen (*bis*)

Orai bi mila urthe, hainitz Erromano  
Gerlan ethorri ziren Eskual herriraino ;  
Kantabre azkar heiek zioten oraino :  
Nahiago dugu hil, sumetitu baino !  
Hitz hori ez da galdu orai arteraino ! (*bis*)

PIERRE DIBARRART.




## BIBA ESKUARA !

---

Gure Yainko Yaunari hemen dut galdatzen  
Zerutik lagunt nezan Eskualdun egoiten.  
Zuek ere gazteak, zaituztet othoizten :  
Eskuara laguntzeko denetan hedatzen,  
Orok ikhasazie eskuaraz mintzatzen (*bis*)

Gernikako arbola ! hire inguruau  
Gituk oro bilduko ezpata eskuan,  
Oihu hau dugularik guziek ahuan :  
Biba bethi eskuara gure eskualdean !  
Gauden Eskualdun bethi, bizian, hilean ! (*bis*)

DONAZAHARTAR GAZTE BAT.



URHENTZIA

✓✓✓

